


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 21a / 651. zenbakia



**ZALDIBARKO TORLOJU
FABRIKA ITXI EGIN DUTE**

ORAIN ETA HEMEN: ATXILOKETAK/7 • KULTURA: SANTA ZEZILIA EGUNA/13

OSASUN GIDA/24

AZALA: ALEX AZKARATE

ILUNTZEAN

Joan Mari Irigoien solaskide


Eguenean, azaroaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



**Ikusiko
duzu!**

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz



MANDIO

Garai bateko San Juanak


Martitzenean, azaroaren 25ean
20:30ean

Aurkezlea:
Goiatz Arana



**Ikusiko
duzu!**

Argakia:
"Nire haurtzaroko Arrasate" liburutik
(Jose Mari Velez de Mendizabal)



KALEINKESTA/ Geruau eta zentro komertzial gehixau zabalketan dabitz; gustetan jatzu?



AINHOA GALDOS
Langillie



MARIBEL MORENO
Langillie



KARLOS BALBAS
Langillie



INES OSINAGA
Langillie



JUAN LUIS LOPEZ
Langillie



NICOLAS SANCHEZ
Langillie

Neuri ez jat bape gustetan. Geruau eta gehixau dauz, eta danok ardixen moduen jueten gare erostera. Diru asko gastetako dauz preparaute. Nik gurau dot denda txikixetan erosi.

Ez jat askorik gustetan. Modan dauz, eta denda txikixei min haundixe egitten dutzie. Klaustrofobikuek diela pentsetan jat. Nik neuk gurau dot kaleko dendetan erosi.

Horreik lekuok ez jat bape gustetan. Kontsumismue asko bultzaketan dauen lekuek diela uste dot. Oso modan dauz eta jente asko jueten da. Ziniek biher dittugu, eta ez holakuek!

Erosliendako komoeduek die, holako lekuetan danetik dau-eta. Baiñe kontsumismue izugarri bultzaketan daue, eta, gaiñera, ez dau denda txikixetan euki leiken tratorik.

Ez jat bape gustetan, baiñe euren klientiek topau dittue; bestela, ez leukie holako dendarik zabalduko. Zarata haundixe egoten da eta tratue hotza izeten da. Gurau dot ez juen.

Gustetan jat, eta jueten naz. Denda txikixei kalte egingo dutzie, baiñe zentro komertzialetan danetik dau: dendak, tabernak, ziniek... Gaztiendako aproposak diela uste dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK BELENZALEEN ELKARTEA Irakurle batzuek txalotu gura izan dute Belenzaleen Elkartea sortu izana. Joan diren urteotan, Gabonetan herrian jaiotza ipini dute. Santa Barbaran ipini zutenean jaiotzari kalte handiak egin zizkioten. Laubiden arazo gutxiago izan zituzten. Irakurle horiek elkartearen lana txalotu gura dute, eta aurrera egiteko animuak eman gura dizkiete.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KULTURA /14

KULTURA /14

Silikosia Arrasaten

San Josepe harrobiko hiru langilek silikosi izeneko gaixotasuna dutela aditzera eman dute.

Mercedes Farriols

Mercedes Farriols aktore argentina-rrak genero-biolentziaren gaineko ikuskizuna egingo du.

Corazon de Encina

Corazon de Encina elkartearen egoitzak hamar urte bete ditu. Egitaraua prestatu dute.

ASTEKODATUA

1.500

LAGUNEK SINATZEA GURA DU ELKARRIK

Elkarrik Bake Konferentzia bultzatu gura du, eta sinadurak behar ditu. Bihar, zapatua, sinadurak batuko dituzte, Eroskiren parean. Arrasaten eta Aretxabaletan 1.500 batu gura dituzte.

BESTE EKESANA

“

Bilakatu dute laborategi. Inpunitatearena. Hamasei urtez preso atxiki ondoan, Enrike Letonak

kondena osoa bete eta ustez libre zegoela berriz ere eraman dute eta kartzelaratu. Eta aspaldiko partez, bere herrian Arrasaten desmasiaren aurka bildu dira bestela elkarririk ez emanda bizi direnak. Poza ematen du guztiak norabide batean ikusteak. (...) Beste askotan bezalaxe termometroa jarri digute, eta arrasatearrek erakutsitako lotsaren indarrak agian kenduko dizkie neurritz kanpoko zigor laborategiak berriz ere saiatzeko gogoak. Eta garrantzitsua dena, arrasatearrena Euskal Herriko bazter guztietara esportatu litekeen eredu dela da. Zain dauzkagu amak”

JOXE MARI OSTOLAZA
‘ARGIA’/03-11-09

HERRITARREN BERBAK/ Antton Mendizabal



Parisko Foro Soziala

Ospatu den Parisko Foro Sozialean egon naiz. Porto Alegren eta Florentzian ikusitakoarekin alderatuz, azalergia gutxiago eta sakontasun gehiago ikusi dut. Horrelako foroan, globalizazio kapitalistaren ondorio basatiak salatzen dira, baina horien zergati buruzko azterketak, ahulak gelditzen zaizkigu. Eta zergati horiei buruzko azterketa argigarriak ezinbestekoak dira, ondorio horien aurka ekimen eragingarriak gauzatu nahi baditugu.

Badakigu ere modernitatearekin loturiko ezkerreko sektore batzuk horixe nahi dutela; dagoenaren aldekoak direlako. Beste aldean, batzuek ondorioen aurkako eragin kortasuna edukitzeko, zergatiak aztertu eta argitu nahi dituzte.

Parisen ikusitako eztabaidaren edukiak zenbait aspektu garrantzitsuetan aurrerapean dakarkigu. Hiru arloetan gauzatutakoak aipatuko ditut. Poliki-poliki, estatu gabeko

herri ezberdinen existentzia eta zapalkuntza, eta zehatzago Europako herrien autodeterminazioaren eskubidea, gero eta onartuago dago. Askok kostata, nazio dominatzaileen ezkerrek erakutsitako arraildura ideologikoetan, herrien aldeko ikuspegi antinperialistak sartzen ari dira.

“Parisko Foro Sozialean azalergia gutxiago eta sakontasun gehiago ikusi dut. Eztabaida oso garrantzitsuak egin dituzte”

Bigarrena, Iraken aurkako inbasioari gerra deitu eta gero ondorioztatuko gerrari eta erresistentziari terrorismo izendatzen dion bakezaletasun sinsorgoak ahulduagoak daude. Irakiarren espero ez

genuen erresistentziak, gerrak gainditzeko herrien eskubideak eta elkartasuna benetako tresna dela argi utzi digute.

Azkenik, munduko merkatal erakundeak (OMC) inposatu nahi dituen lehiakortasunerako arauak eta egitasmoak mundu osoan eta bereziki Hirugarren Munduko 3.000 milioi nekazariei egingo dien eraginen gainean egindako azterketak sekula baino sakon eta argigarriagoak dira. Hori da bidea.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 22**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99
- DOMEKA, 23**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 24**
Irizañ, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 25**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 26**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUENA, 27**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 28**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

EROSKIKO BERBALDIAK
Eroski Fundazioak hainbat berbaldi antolatu ditu. Martitzenean, azaroaren 25ean, *Loreekiko Gabonetako apainketa: teknika orokorrak* berbaldia egingo dute. Eta eguaztenean, azaroaren 26an, *Loreekiko apainketa: artea gure etxeetan*. Itziar Lazkanok egingo ditu bi berbaldiok eta Monterronen izango dira, 16:30ean.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Eguenean, azaroaren 27an, *Un final made in Hollywood* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

AMNESTY INTERNATIONAL
Martitzenean, azaroaren 25ean, Amnesty Internationalen txostena aurkezteko berbaldia antolatu dute. Jaxinto Albizu izango da hizlaria. Udaleko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan. Arrasateko Komite Internazionalistek antolatu dute.

AED-REN 20. URTEURRENA
Bihar, zapatua, AEDk bertso bazkaria antolatu du Uarkapeko tabernan. Xabier Amuriza, Jon Maia, Jokin Labaien eta Manex Agirre egongo dira, besteak beste. 14:30ean izango da. Domekan, *Eskubiko pareta* ikuskizuna egingo dute gaztetxean, 18:30ean.

AEDrenAGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK
2004ko Seaskako egutegiak salgai daude AEDko bulegoan. Hiru eurotan saltzen dituzte.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berria egunkariaren aldeko akzioak salgai dituzte AEDko bulegoan. Horrez gain, Egunkaria aurrera! plataforma lanean dabil. Jo AEDra eurekin bat egitera!

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Gabonetako argien gaineko auzia airean

Gabonetako kale-argiak zirela eta sortutako polemika ez zen konpondu. Aurrekontuetan hiru milioi pezeta zeuden erdigunea argiokin apaintzeko (EAJk eta PSE-EEk onartuta), baina Gobernu batzordeak ez zuen gastu hura baimendu, HB eta EA aurka zeudelako.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Atselekua"



Atsedan-lekua.
—Urrutitik sendorrak bizkarka ekarri behar ziren etxeetan, bide erdian atselekua egon ohi zen. Bi esola zutik eta gainean ohol bat, karga han utzi eta gero berriz erraz bizkarreratzeko.


GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Julio Ibarri egindako elkarrizketa

Martitzenetik aurrera, GOITB-ko *Iluntzean* saioan Aintzane Gardokik egindako elkarrizketak eskainiko ditugu Arrasate Irratian. 24an, 19:00etako albistegiaren ondoren, Julio Ibarri kazetari ezagunarekin izandako solasaldia errepikatuko dugu. Datozen asteotan Txaro Artea, Abraham Olano eta Igor Elortzen txanda izango da.
Egubakoitz iluntzean, bestalde, ez ahaztu hitzordua duzuela Jokin Etxebarriarekin, *Planing Prest* saioan.



Joxe Etxeberria Guatemalatik bueltan

Joxe Etxeberria, Aralarko zinegotzia, Guatemalan egon da eta han bizi izandakoak kontatu dizkigu. Hauteskundeetan begirale lanak egin ditu Etxeberriak, eta Arrasateko Udalaren dirulaguntzarekin Euskal Fondoak garatzen dituen proiektuak gertutik ikusi ditu. Zapatu eta domekan errepikatuko dugu, baita ere Asier Huegunen inguruan haren ezagun batek, Asier Bardeci bergararrak, eta Joseba Etxeberria osaba frantziskotarrak esandakoak.

HAUGIROA!

MINIMOA 0 °C
Martitzena,

MAXIMOA 16 °C
Egubakoitza, 14

ASTEKO EURIA (l/m²) 41,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	16 °C	9 °C	1,1 l/m²
Eguena, 13	16 °C	9 °C	0,5 l/m²
Egubakoitza, 14	16 °C	9 °C	- l/m²
Zapatua, 15	15 °C	7 °C	0,6 l/m²
Domeka, 16	12 °C	10 °C	39,5 l/m²
Astelehena, 17	13 °C	6 °C	- l/m²
Martitzena, 18	12 °C	0 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 *Planning Prest*
- ZAPATUA**
10:00 *Asteko albisteak*.
10:15 *Asteko elkarrizketak*: Juanma Urrutia, San Josepe harrobiko langile ohia; Joxe Etxeberria, Guatemalako bidaiari; Asier Bardeci eta Joseba Etxeberria, Asier Huegunen inguruan; Eñaut Arriaranen liburu gomendioa...
- DOMEKA**
10:00 *Asteko albisteak*.
10:15 *Asteko elkarrizketak*
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 *Albistegia*
10:00 *Euskadi Irratiko albistegia*
10:06 *Igo Autobusera* magazina: efemerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 *Euskadi Irratiko albistegia*
11:06 *Igo autobusera* magazina
11:30 *Arrasate Irratiko albistegia*
11:40 *Igo autobusera* magazina
12:00 *Euskadi Irratiko albistegia*
12:06 *Izarren ordua*: abesti ezagunak.
13:00 *Euskadi Irratiko albistegia*.
14:00 *Goizeko saioaren errepikapena*.
17:00 *Izarren ordua*.
19:00-21:00-23:00 *Albistegi laburra*
- MARTITZENA**
19:10 *Iluntzean*: Julio Ibarri

ASTEABIHITZETAN

Elkartasuna musika irakasleei

Arrasate Musikaleko hainbat irakaslek elkartasuna adierazi diete euren lan baldintzak hobetu gura dituzten EAEko musika irakasleei.

Irakaskuntza pribatuaren lan hitzarmenaren barruan, musika eskoletako irakasleek eranskin duina eskatzen dute. Arrasate Musikaleko irakasleek, berriz, ikastolen lan hitzarmena dute, eta gainontzeko langileekin bat egin dute. Hala ere, elkartasuna adierazi gura izan diete beste eskoletako musika irakasleei.

Arrasateko jeltzaleek, Egibarren alde

Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleak Joseba Egibarren alde egin du Euskadi Buru Batzarreko presidentea aukeratzeko lehen aldiko bozketan. Joseba Egibarrek 30 boto eskuratu zituen; Josu Jon Imazek, berriz, 23 boto.

Bi hautagai horiek, Mondragoetz gain, ibarreko beste herri batzuetan ere izan dira euren txosten politikoak aurkezten. Arrasaten, Bergaran eta Aramaion Egibarrek irabazi du. Oñatin, berriz, Imaz nagusitu da. EAEko emaitza orokorrak urtarilean emango dituzte aditzera.

Arizmendik, ate irekien jardunaldia

Arizmendiko Almen gunek ateak ireki zituen joan den zapatuan. Ikastolako ordezkariendako oso garrantzitsua da gurasoek ikastetxea ezagutzea, Arrasatetik eta beste herrietatik kanpo egonda, askok ez dute-eta ezagutzen.

Almen gunea gertutik ezagutzeko instalazio guztiak zabalik egon ziren zapatuan, eta geletan, irakasleak gurasoen galderen zain egon ziren. Aukera paregabea, beraz, ikastolaren nondik norakoak ezagutzeko. Egun hori, baina, ez zuten gurasoendako bakarrik egin, gaztetxoendako ere ekintza asko presatu zituzten-eta: antzerkia eta pailazoak, besteak beste.



Istripua Zarugalde kalean

Egubakoitz eguerdian istripua izan zen Zarugalde kalean. Peugeot Partner markako auto batek eta kamioneta batek elkar jo zuten, aurrez aurre. Zorionez, istripuak kalte materialak bakarrik eragin zituen. Auto gidariak kolpea zuen buruan, baina ez zen ezer larria.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Fantasiatzko bizipenak

Aste honetan Mickey Mousek 75 urte bete ditu. Pertsonaia horren aita Walt Disney enpresaburu eta marrazkilari izan zen. Disney fantasiatzko mundu baten bizi zen eta pertsonaia mordo sortu zituen. Izugarritzko ospea hartu zuen.

Baltasar Garzon ere fantasiatzko mundu baten bizi da, baina askoz arriskuatsuagoa da, epailea delako

eta bere burua ospetsu bilakatu gura duelako. Garzonek ere pertsonaia eta egoera fantastikoak asmatzen ditu.

Asmatu duen azkena da ustezko gaizkileak delitua egin aurretik atxilotzea eta, ahal izanez gero, espetxeratzeta, jakina. Zenbat eta lagun gehien atxilotu eta espetxeratu, harentzat hobe. Berdin da zergatik, zelan, eta gerora

lagun horien errugabetasuna agerian geratzen den edo ez. Aske gelditu direnen berri ez du ia inork ematen!

Aste honetan Gaizka eta Saioa atxilotu ditu ustez etorkizunean egin ditzaketen delituengatik, eta laster askatzen badituzte ere (zeinek daki!), mina egina dago. Deklarazioa hartzeko ez dago zertan atxilotu, eta are gutxiago inor inkomunikatu beharrik. Izan ere, batzuen fantasia askoren amesgaiztoa da!

ASTEKOIRUDIA




UBANE MADERA

ASTEAN HIRU ATXILOKETA EGIN DITUZTE HERRIAN, ETA MOBILIZAZIO UGARI EGIN DITUZTE.

Joan den domekan, Igor Letona arrasatearra atxilotu zuten Frantzian. Bezperan, paradoxikoki, haren anaia Enrikeren aldeko manifestazio jendetsua egin zuten; 2.000 bat lagunek hartu zuten parte. Martitzen goizaldean, polizia nazionalak Gaizka Azkarate eta Saioa Altzua atxilotu zituen. Bi etxeetara gaeuz sar-

tu ziren eta miaketak egiten bi ordu inguru eman zituzten. Inkomunikaturik daude orduz gero, Garzonen aginduz. Atxiloketon ondorioz, astelehenetik egubakoitzera arte herri batzarrak eta manifestazioak egin dituzte, atxiloketak salatze eta hiru arrasatearren egoeraren gaineko kezka azaltzeko. /I.B.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Garagardo ona, giro hobea



Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

INDUSTRIA/ Union Cerrajerak Zaldibarren zeukan torlojugintza fabrika itxi egin zuten urrian

Zaldibarren ez dute gabila eta torloju gehiagorik egingo, fabrika itxi egin dute-eta

XABIER URZELAI

Zaldibarren dagoen Union Cerrajerako fabrika dagoeneko ez dute gabila eta torloju gehiagorik egingo. Fabrikako ateak itxi zituzten urrian, eta gaur egun, Kataide industrialdean geratzen da garai batean Union Cerrajera izan zenaren azken arrastoa.

Union Cerrajera lantegia Vergarajauregi Resusta eta Cerrajera Guipuzcoana enpresak batu zirenean sortu zen. 1906an izan zen, baina ordurako Vergarajauregi Resusta enpresak lantegia zeukan Zaldibarren.

Union Cerrajera enpresa 1912an hasi zen trenbide eta errailendako torlojuak eta gabilak (tirafondoak) egiten. Itxi berri duten lantegia, oster, 1926an eraiki zuten, Toribio Agirre gerentea zela. Lantegia betiko itxi duten arren, oraindik ere barruan daude lan egiteko beharrezkoak ziren labeak.

LAN GOGORRA

Torlojugintzako fabrika lan egitea ez zen txantxetako kontua. Urteko sasoi guztiak izaten ziren gogorak, baina uda parte bereziki gogorra izaten zen: labeek botatzen zuten beroa zela-eta langileek ur asko edan behar izaten zuten; bestela, berehala gaixotzen ziren, deshidratatuta.

Gazte mondragoetarrek zera entzun behar izaten zuten askotan: "Ikasi gura ez baduzu, torlojugintzako fabrikara joango zara lanera". Fabrika horretan torlojuak eta gabilak egiten zituzten. Labe ondoan lan egitea ez zen batere erosoa: gabila berotzeko labe bertikaletako zuloetan sartzen zuten pieza. Pieza berotu eta



ARRASATEKO INDUSTRIA ERAKUSKETA

Zaldibarren dagoen torloju fabrikak 77 urte egin ditu zabalik.

gero, gabilaren burua egiten zuten matxinoan. Labeetako zuloetatik sua ateratzen zen, eta erretzeko arriskua zegoen.

LABE HORIZONTALATAN, GAIZKIAGO

Labe horizontalatan lan egitea oraindik ere gogorragoa zen: gabilei burua egin eta gero, hariztatu egin behar ziren. Pieza berriro ere berotzeko labe horizontalak erabiltzen zituzten: gabilaren punta berotzen zuten, eta hariztatzeko makinan haria egiten zioten piezari.

Union Cerrajeran lanean hasten ziren gaztetxo gehienak torlojugintzako fabrika estreinatzen ziren. Hori bai, *entxufe* zeukatenek beste lantegi batzuetan hasten ziren lanean. Orduko langileek esanetan, Guardia Zibilen semeek ez zuten torlojugintzako fabrika lan egiten: "1916ko grebaren ondoren, Guardia Zibilen eta ugazaben arteko harremana asko hobetu zen. Greba hura Arrasaten ezagutzen den luzeena izan zen, lau hilabete iraun zuen-eta. Aldarrikapen eta errepresio

garaiak izan ziren. Greba amaitu eta gero, Guardia Zibilek kuartel etxe berria estreinatu zuten".

Gazteendako lehenbiziko lana izateaz gainera, torlojugintzako fabrika *zigor lekua* ere bazen: zigortuta zeuden langileak hara bidaltzen zituzten lanera.

Urteek aurrera egin arren, fabrika ez zen askorik aldatu. Erregai izan zen urte haietan guztietan aldatu zen gauza bakarrak: hasiera baten ikatz begetala erabiltzen zuten; gero, gasogena; eta azken urteotan fuel-olioarekin egin dute lan.

TEKNOLOGIA BERRIEN ERAGINA

Torlojugintzako fabrikak ehun langile izan zituen garai baten. 60ko hamarkadatik aurrera, baina, langile kopuruak behera egin zuen.

Beharakada hartan hainbat faktorek eragin zuzena izan zuten: horietako bat, trenaren desageretzea. Union Cerrajeraren garpenerako horren garrantzitsua izan zen garraibidea kendu egin zuten, eta fabrikaren beharakada eragin zuzena izan zuen. Ez zen izan, baina, langile kopuruak behera egiteko arrazoi bakarra; izan ere, 1975ean, automatizatutako makina ekarri zuten lantegira. Horrek lan baldintzak asko hobetu zituen; piezak azkarrago egiten zituzten eta fabrikak ez zituen horrenbeste langile behar.

Torlojugintzako fabrika zortzi labe zeuden eta labe bakoitzean hiru langile egiten zuten lan. Hiru langileok egiten zuten lana-

Gazteendako lehen lantokia izateaz gain, Zaldibarko fabrika 'zigor lekua' ere bazen

Torlojugintzako fabrika lan egitea ez zen txantxetako kontua; uda parte izaten zen gogorra

Zaldibarko fabrika zen Union Cerrajerak herrian zuen azken ondareetako bat


ri esker, labe bakoitzean 2.000 gabila egiten zituzten errelebu bakoitzean. Zortzi labe zeudenez, 24 langileren artean 16.000 gabila egiten zituzten. Prentsa automatizatuak, berriz, errelebu batean 16.000 gabila egiteko lau langile baino ez zituen behar. Datu horiek, baina, ez dira erabat zuzenak; izan ere, makina berriak ematen zituen arazoak zirela-eta, konponketa lanetan denbora luzea galtzen zuten.

Lan gutxi zegoen sasoi, langileak beste sekzio batzuetara joaten ziren lanera; besteak beste, butano bonbonak edo automobilendako eta kamioiendako gurgilak egitera.

AZKENEKO LANGILEAK, KATAIDEN

Zaldibarren dagoen fabrikak 77 urte bete ditu aurtan, baina ez ditu gehiago egingo. Azken urteotan ez bezala, aurreko urte guztietan gizona egiten izan dute lan fabrika horretan; azken bi urteotan, berriz, zazpi emakumek jardun dute torlojugintza fabrika lanean.

Gaur egun, Kataide industrialdean daude Union Cerrajerako azken sekzioak. Zaldibarko fabrikako hamabi langilek egiten dute lan sarrailagintza eta torlojugintza sekzioetan. Langile horiek ordezkatzeko dute garai baten ehun langile osatzen zuten lantaldea. Union Cerrajeraren arrastoa apurka-apurka desgertzen dabil, eta Zaldibarko fabrika zen UCEMek herrian utzitako azken ondareetako bat.



ARRASATEKO INDUSTRIA ERAKUSKETA

Zaldibarko torloju fabrika lan egitea gogorra zen, uda partean batez ere.

POLITIKA/ Operazio poliziala

Hiru arrasatear atxilotu dituzte oraingo astean

UBANE MADERA

Oraingo astean hiru arrasatear atxilotu dituzte. Astelehenean Igor Letona atxilotu zuten, Frantzian; eta martitzenean Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate, Arrasaten. Azken biak Garzon epailearen aginduz.

Igor Letona *Ataxi* Frantziako poliziak atxilotu zuen Mikel Uzkudunekin batera, Agendik 30 bat kilometrora dagoen errota batean. Frantziako terrorismoaren kontrako poliziak atxilotu zituen. Haiek emandako informazioaren arabera, errotan armak, lehergai-luendako piezak, dokumentazio faltsua, disketeak, trokelatzeko makina bat eta matrikula faltsuak aurkitu zituzten. Ustez, ETaren aparatu logistikoko kide dira biak. Eta iturri polizialen arabera, iaz hasitako ikerketa baten ondorioz atxilotu dituzte. Hain zuzen ere, Laurence Guimon eta Ismael Berasategi atxilotu zituztenean hasi zuten ikerketa hori (azken horrek aurtengo abuztuan ihes egin zuen kartzelatik). Albiste hau idaztean esandakoaren arabera, Tolosako (Frantzia) komisariatik Parisko La Sante espetxera eraman zuten. Igor Letona *Ataxi*-k 32 urte ditu.

1990ean bost urteko kartzela zigorra ezarri zioten ETako kide zela leporatuz. Eta urtebete inguru egin zuen kartzelan. Gero, baldintzapean askatu zuten, eta 1994ra arte Arrasaten bizi izan zen. Orduan ihes egin zuen.

SAIOA ALTZUA ETA GAIZKA AZKARATE
Bestalde, martitzen goizaldean Saioa Altzua eta Gaizka Azkarate

Tolosako (Frantzia) komisariatik Parisera eraman zuten Igor Letona martitzenean

Atxilotetak sostengu juridiko barik egin dituztela salatu dute, prebentzioaren izenean

atxilotu zituzten. Audientzia Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aginduz egin zituen Polizia Nazionalak atxilotetok. Biak hala biak gurasoen etxean atxilotu zituzten, bata Grupo San Juanen eta bestea Pablo Urangan. Gauerdian sartu zen polizia haien etxebizitzetan eta pare bat orduz ibili ziren arakatzten. Ibon Fernandez de Iradi *Susper*-i atzemandako dokumentazioarekin lotu dituzte bi arrasatearrak; haren zerrendan agertzen ei ziren, ETako kide izateko. Operazio horrek izaera prebentiboa du. Hau da, ustez, etorkizunean delituren bat egingo dutelakoan atxilotu dituzte.

Martitzenean bertan eraman zituzten biak Madrilera, hango polizia etxera, eta bakartuta daude harrezkero.

MOBILIZAZIOAK

Hiru atxilotetak salatzeo mobilizazioak egin dituzte egunotan. Eta, amnistiaren aldeko mugimenduak, besteak beste, zera salatu du: "Atxilotetak inongo sostengu juridiko barik egin dituzte; herri mugimenduan lanean daudelako eraman dituzte, Euskal Herriarekiko duten konpromezuarengatik". Kontrol poliziala ere salatu zuen.



UBANE MADERA

Atxilotetengatik protesta ekitaldiak egon dira egunero.

Emakumeek jasaten dituzten tratu txarren kontrako zenbait ekimen

Datorren martitzenean, azaroaren 25ean, emakumeen tratu txarren kontrako nazioarteko eguna da. Horrekin lotuta zenbait ekimen egin dituzte herrian. Besteak beste, eguaztenean tratu txarren aurrean zer egin azaltzeko hitzaldia egin zuen Fundacion Mujeres-Madrid taldeko Maria Angeles Alvarez hizlariak.

PRENTSAURREKOA

Bestalde, eguaztenean prentsaurrekoa egin zuten osoko bilkuren aretoan. Aralar, Zutik, EB-IU eta Herri Anitza alderdietako eta gaztetxeko gizonen ordezkariak eman zuten prentsaurrekoa. Esandakoaren arabera, emakumeen egoerarengatik enpatia sentitzen duten gizonen eredu izan behar dute gainontzeko gizonendako, oro har, gizonen emakumeei egiten dieten minaz jabe daitezten. Diote gizonen gogoeta egin behar dutela, "emakumeen kontrako tratu txarren iraupena gizarteak gizonetzkoiei eta emakumezkoiei eman dien lekuaren emaitza delako". Hau da, gizarteak gizonetzkoiei emandako pribilegioen emaitza. Horrekin guztiarekin batera, salatu zuten



Gizonetako dezente elkartu zen tratu txarren kontrako prentsaurrekoan.

orain arte 63 emakume hil direla bikotekideek eragindako tratu txarren ondorioz. Iaz baino hamabi gehiago. Eta, horren aurrean, tratu txarren kontrako legea gogortu badute ere, egiten denarekin ez dela arazoa konpontzeko nahikoa.

Horrez gainera, salatu zuten komunikabideek ez dietela behar bezalako tratamendua ematen tratu txarren gaineko albisteei eta

Elizak, oraindik ere, emakumeak bigarren mailako gizakiak balira bezala tratatzen dituela.

MARTITZENEAN, KALE BILKURA

Bukatzeo, datorren martitzenean, tratu txarren kontrako egunean, kale bilkura egiteko dei egin dute Emakume Txokotik. 19:30ean hasiko da, Herriko Plazan. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* izango da leloa.

LABUR

Auto-taxi zerbitzu bat oposizio bidez adjudikatuko du Arrasateko Udalak abenduan

Arrasateko Udalak auto-taxi zerbitzu bat atera du lehiaketara, oposizio bitartez adjudikatzeko. Izan ere, gaur egun lizentzia horren jabe denak lizentzia transmititu egingo du. Honako irizpideen arabera egingo dute adjudikazioa: lan-egoeraren arabera, egoera fisikoaren arabera, egoera ekonomikoaren arabera eta interesa duen pertsonaren mendeko diren lagun kopuruaren arabera, 40 punturaino eskura daitezke. Arrasaten, gutxienez orain dela urtebete dela erroldatuta egonez gero, 25 puntu eskura daitezke. Herria ezagutzearren, 15 puntu, Arrasaten gidari moduan lan egitearren antzinakotasuna izatearren 10 puntu eta euskaraz jakitearren beste 10 puntu eskura daitezke.

Irizpide horien guztien arabera puntu gehien lortzen duenari adjudikatuko diote auto-taxi zerbitzua. Pertsona horrek 42.472,22 euro ordaindu beharko ditu horren truke.

Eskaerak aurkezteko azkeneko eguna 2003ko abenduaren 15a izango da.

Arrasate pasealekuan dauden zirkulazio arazoak konponduko dituzte epe ertainean

Arrasatear batek idatzia aurkeztu zuen Udalean Arrasate pasealekuan arazoak zeudela salatzeo. Hark esaten zuenez, kale hartan aparkalekuak ez daude behar bezala seinaleztatuta; noranzko bikoitza dago eta auto-ilara handiak sortzen dira.

Salaketa horren aurrean, Udaltzaingoak egoera aztertu zuen. Besteak beste, azterketaren ostean egindako txostenean jakinarazten dute epe ertainean Arrasate pasealekuan arazo horiek konpontzeko lanak egin behar dituztela: seinaleztapen berria ipiniko dute; aparkalekuak behar bezala seinaleztatuko dituzte, eta noranzko bakarria ezarriko dute. Horrekin, auto-ilaren arazoa konponduko dutela uste dute. Oraingo asteko Gobernu batzordeak txostena aztertu eta onespina eman dio. Hortaz, Udaltzaingoak proposatutakoa egingo dutela jakinarazi dute.


San Josepeko hiru langileri silikosi izeneko gaixotasuna diagnostikatu diete

UBANE MADERA

San Josepe harrobia berabagai izan dugu oraingo asteen; izan ere, hango hiru langilek silikosi izeneko gaixotasuna dutela jakinarazi dute. Edozelan ere, Gizarte Segurantzak ez die ezintasunik aitortzen, eta ondorioz, ezin diote kalte-ordainik eskatu enpresari.

Biriketako gaixotasun kronikoa da silikosisia. Silize izeneko mineralaren kristaltxo txikiak biriketaren sartuta edukitzearen sortzen da. Gaixotasun horrek ez du eguneroko bizitzarako eragozpen handirik sortzen, baina baldintzatu egiten du; adibidez, arnasa hartzean enbarazu egiten du. Horrez gainera, denborarekin biriketako bestelako gaixotasunak sor ditzake silikosiak; tartean, kantzerra.

Jeneralean, meatzetan eta urte luzean lan egiten duten langileek harrapatzen dute gaixotasun hori, hautsak arnastearren. Eta, hain zuzen ere, horixe da San Josepe harrobiko hiru langileri diagnostikatutakoa: silikosisia. Kontua da iaz San Josepeko langile ohi bati silikosisia diagnostikatu ziotela. Hori jakitean,



ARRASATE PRESS

San Josepe harrobia da silize pilaketa handien duen inguruotako harrobia.

gainerako 18 langileei ere osasun azterketak egin zizkieten eta beste bik gaixotasun bera zutelatzeman zuten.

Lanak eragindako gaixotasuna da silikosisia, eta Gizarte Segurantzak ere hala onartzen du. San Josepeko langileei, baina, Gizarte Segurantzak ez die gaixotasu-

nak eragindako ezgaitasunik onartzen, euren gaitzak larritasun maila txikia duelako. Horren ondorioz, ezgaitasunik aitortzen ez zaienez, ezin dute ezertxo ere egin enpresari kalte-ordainak eskatzeko.

Kasu larriena Juanma Urrutiarena da; izan ere, arrasatear

horrek sei urte besterik ez zuen egin harrobian lanean (1990etik 1996ra arte), eta betiko gaixotasuna hartu zuen.

SEGURTASUN NEURRIK EZ

Juanma Urrutiak salatu du, besteak beste, berak harrobian lan egiten zuen sasoiari San Josepe Bi izeneko enpresak ez zuela langileen osasuna babesteko nahiko segurtasun neurri hartzen; mediku kontrolak ez zituztela behar bezala egiten, ezta hautsen kontrolak ere, eta enpresako instalazio guztiak produkzioaren onerako ipinitakoak zirela eta ez langileen onerako. Horrez gainera, salatu du ez ziotela inongo informazio eman lanaren arriskuaren inguruan, eta San Josepeko harrobia dela silize pilaketa handien duen inguruotako harrobia.

ENPRESAK, ADIERAZPENIK EZ

San Josepe Bi enpresakoen harremanetan jarri gara, argibiderik izanez gero, haiek jasotzeko. Baina adierazi digute oraindik ez dutela adierazpenik egiteko asmorik.

San Josepe harrobiak 2004ra arteko baimena dauka lanean segitzeko.

LABUR

Sinadurak batuko ditu Elkarrik, Bake Konferentziaren alde

2004ko martxotik aurrera, Elkarrik beste Bake Konferentzia bat bultzatu gura du. Oraingo honetan, Eskabide Eskubidea erabiliko du hori lortzeko; hau da, Konstituzioaren 29. artikulua aitortzen duen moduan, gizartearen parte-hartzearen bitartez, instituzioetan proposamenak egiteko eskubidea. Lege horren arabera, prozedura hori erabiliz gero, erakundeak derrigortuta daude jasotako eskaerak tramitatzeko eta erantzuteko. Hala, datozen sei hilabeteotan 100.000 lagun sinadurak batzen ahaleginduko da Elkarrik.

Arrasaten eta Aretxabaletan, gutxienez, 1.500 sinadura eta bost euroko laguntza behar ditu. Hori lortzeko, bihar, zapatua, Eroski hipermerkatuaren parean egongo dira sinadurak batzen. 11:00etatik 13:00etara ibiliko dira lan horretan.

Arrasate-Aretxabaletako taldea hamabostean behin batzen da. Edozeinek du parte hartzeko aukera. Gura duenak 943 00 06 00 telefonora dei dezake.

Aparkalekuak egingo dituzte Union Cerrajera lantegiaren inguruan

UBANE MADERA

Aparkaleku berria egokituko dute laster Eskualdeko Ospitale inguruan. 169 aparkaleku izango ditu: 165 leku arruntak izango dira eta lau zailtasunak dituzten pertsonendako. Asko jota, lau hilabeteko epea izango dute lanok egiteko eta ia 70.000 euroko aurrekontua.

Eskualde Ospitale inguruan aparkaleku berriak egingo dituzte. Hain zuzen ere, 5.600 m² erabiliko dituzte horretarako, Union Cerrajerarena zen orube batean. Guztira, 169 aparkaleku egingo dituzte, horietatik lau zailtasunak dituztenendako egokituta. Hain justu ere, Garibai etorbideko lur azpiko aparkalekuak egin artean erabiltzeko izango dira aparkaleku berri horiek. Hala erabaki dute oraingo asteen Gobernu batzordean.

ASKO JOTA LAU HILABETE

Guztira, lau hilabeteko epea izango dute aparkalekuok egiteko. Eta ia 70.000 euroko aurrekontua. Kontua da Union Cerrajerarena zen orube hura egokitu egin behar dutela aparkalekuak egin ahal izateko. Ondo egokituko dute, gainera, zoladura, kanalizazio eta



U.M.

Guztira 169 aparkaleku egingo dituzte Zerrajera inguruan.

guzti. Izan ere, behin-behinerako aparkalekuak diren arren, luza-roan erabiliko ditugu. Adibidez, Zerrajerako etxeak egiten dituztenean, orain arte erabili izan ditugun aparkalekuak desagertu egingo dira eta berriak erabili beharko ditugu.

FUEL-OLIO BILTEGIAK

Bestalde, han inguruan fuel-olioa gordetzeko bi biltegi daude lurpean. Biak hala biak hutsik dau-

de. Baina, jakina, ezin dira dagoenetan utzi. Bi aukera daude: han lagatzea, ondo estalita; edo biltegiak ateratzea eta zuloak tapatzea. Udalak bi aukerak hartu ditu kontuan. Lanak egin behar dituen enpresak erabaki beharko du zein den egokiena. Edozelan ere, bigarren aukerari eman diote lehentasuna.

Lanok egiteko interesa duten enpresek zabalik dute epea proposamenak aurkezteko.

ARAMAIO eta ARRASATE

Historiak lotutako bi herri
Dos pueblos unidos por la historia

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Arrasateri eta Aramaiori buruzko liburua

Aramaio eta Arrasate, Historiak lotutako bi herri izeneko liburua aurkeztu zuten atzo, eguena, Monterron jauregian. Han izan ziren, besteak beste, Josemari Velez de Mendizabal idazlea bera eta Ignacio Lakuntza alkatea.

Oro har, Aramaioren eta Arrasateren arteko harremana abiapuntu hartuta, "bi herri horien arteko mugarririk historikoa batzuk" azaltzen ditu Velezek liburuan. Hiru ataletan banatuta dago, euskaraz eta gaztelaniaz idatzita, eta testuari laguntzen antzinako argazkiak eta dokumentuak daude. /U.M.



SPORTLANDEKIN REALA IKUSTERA

Argazkikoak Iñaki eta Aitor Irastortza dira. Sportland kirol dendan Adidas produktuak erosteagatik irabazitako sarrerei esker, Realaren eta Juventusen arteko partidua zuzen-zuzenean ikusi ahal izan zuten. Eta ez edozein lekutan: Anoetako jarleku onenetan izan ziren. Talde txuri-urdinak, gainera, partidu polita egin zuten.



GAZTAINA EGUNA AITAITA JULIOREKIN

Urtero moduan, aurten ere aitaita Julio Arizmendi ikastolako Olarte gunera hurbildu zen gaztainak erretzera. Umeek primeran pasatu zuten suaren eta danbolinaren inguruan. Gura beste gaztaina jateaz gain, kantuan eta dantzan ere egin zuten Mondragoe-

ko gaztetxoek. Urtero egiten duen bisitari esker, aitaita Julio dagoeneko ezaguna da Olarte guneko ikasleen artean. Gune horretako irakasle eta ikasleek eskerrak eman gura dizkiote, eta, noski, datorren udazkenean ere ez dezala kalerik egin!



ORAINGO ASTEAN ERE GURA BESTE BISITA IZAN DITUGU

Joan den astean ikasle askoren bisita izan genuen ARRASATE PRESSen. Eta oraingo astean ere ez gara bakarrik egon, Arizmendiko hainbat ikasle izan dira-eta gurean. Badirudi herrian kazetaritzak harrobi ona izango duela, ikasle horiek ere, joan den astekoak moduan, aldizkari bat egin guran dabilta-eta. Aldizkaria Gabonetarako egin behar dute, eta herriko aldizkaria nola egiten dugun ikustera etorri ziren. Oraingo asteko ikasleek joan den astekoek baino galdera gehiago egin zituzten, eta hori oso garrantzitsua da. Zorte ona opa diegu, ea lan txukuna egiten duten!!!



XABIER URZELAI

Jon Muruamendiarazek bi gol egin zituen domekan, lehen penaltiz.

FUTBOLA

Azkoagainen galduta (3-2), Mondrak behera egin du sailkapenean

Mondrak bigarren zatian galdu zuen partidua, oñatiarrek bi gol egin zituzten-eta

XABIER URZELAI

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, Aloña Mendik eta Mondrak derbi ikusgarria jokatu zuten domeka arratsaldean Azkoagainen. Lehen zatian Mondra gehiago izan zen (1-2), baina bigarren zatian Aloña Mendik erasoko jokoa eginez partidua irabazi zuen (3-2).

Lehenengo zatiko hasierako minutuetan Aloña Mendik izan zuen baloia jabetza, eta Mondrak kontraerasoan jokatu zuen. Aloña Mendi aurreratu zen markagailuan: Mondrako atezainak ez zuen asmatu Murgoiatik egindako falta jaurtiketa bat urrun-

tzen eta alderatzea ondo aprobetxatu zuten oñatiarrek (1-0). Gol horri esker Mondra esnatu egin zen, eta Josu Zubiaren mutilek apurka-apurka gora egin zuten.

Muruak eman zuen lehenengo abisua, jaurtiketa on bat eginenez baloia langara bota zuen-eta. Minutu batzuk geroago, Jon Loitiri penaltia egin zioten, eta Muruak partidua berdindu zuen (1-1). Hamaika minutu geroago, 31. minutuan, Muxi-ren pase on bat ondo aprobetxatuta 1-2koa egin zuen Muruak.

Horrela amaitu zen lehenengo zatia, baina bigarren gauzak asko aldatu ziren. Aloña Mendik hobeto jokatu zuen; oñatiarrek gora egin zuten eta Mondrak

bigarren zati osoan ez zuen gol aukera garbi bat ere izan. Lehenengo zatian Murua izan bazen Mondrako jokalaririk azpimarragarriena, bigarren zatian Mikel Calvo atezaina izan zen jokalaririk onena. Sorluzetarrak meritu handiko geldiketak egin zituen, ikusgarriak asko, baina dena ezin gelditu. Defentsa lanetan hankamotz ibili zen Mondra, eta erasoan hori ere ez. Horrela, 51. minutuan Aloña Mendik 2-2koa egin zuen eta 81. minutuan 3-2koa.

Mondra zortzigarrena da sailkapenean, eta oraingo asteburuan hamabosgarren lekuan dagoen Ordizia etorriko da Atxabalpera. Ez da lokartzeko momentu batere aproposa.

FOTOKIROLA



Zikloturisten batzar orokorra

Arrasateko Debagoiena Zikloturista taldeak batzar orokorra egingo du hilaren 29an, zapatua. Hain zuzen ere, zikloturistek Ignazio Zuloaga kalean duten egoitzan egingo dute batzarra, 19:00etan. Horren ostean, afaria izango dute Hostalean, eta, hori aprobetxatuta, joan den denboraldiko zikloturista azpimarragarrienei omenaldia egingo diete. Afarira joan gura dutenek hilaren 26a baino lehen eman beharko dute izena. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - You Know	6-8
Billy & The Cowboy - Bikain Akademia	2-3
Iriztu Taberna - Rayo Aldeano	6-3
Alpargat-Estutu!!! - AT Celaya	4-4
Abocajarro - Koka Junior	5-2
Aloña Taberna - Saukelu Scream	3-7

B MULTZOA

AC Surcos - Goma-2	8-1
Fuxxio - Etxerat	3-7
El Ekipo A - Dream Team	4-6
Dribling - Errasti Kristaldegia	14-6
Lasagabaster - Whiskeria	7-1
Speed Boys - Tomahawk	2-6

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Alpargat-Estutu!!!	5	3
2. Rayo Aldeano	4	3
3. You Know	4	3
4. Abocajarro	4	3
5. Aloña Taberna	4	3
6. Iriztu Taberna	4	3
7. Saukelu Scream	4	2
8. AT Celaya	3	3
9. Betrayer	2	2
10. Bikain Akademia	2	3
11. Koka Juniors	0	3
12. Billy & The cowboys	0	3
13. KPPC	0	2

PARTIDUAK

AZAROAK 22, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Betrayer - Bikain Akad.	Dribling
11:00: Dribling - Tomahawk	Bikain Akad.
12:00: Iriztu Tab. - Koka Juniors.	Tomahawk
13:00: Abocajarro - Saukelu Scre.	Iriztu T.
14:00: Billy & The... - AT Celaya.	Saukelu
15:00: Fuxion - Errasti Kristald.	Billy & The.
16:00: You Know - Rayo Aldeano.	Fuxion
17:00: Goma-2 - Dream Team.	You Know
18:00: Lasagab. - Speed Boys.	Dream Team

B MULTZOA

	P	J
1. Dribling	6	3
2. AC Surcos	6	3
3. Etxerat	4	3
4. Dream Team	4	3
5. Tomahawk	4	3
6. Lasagabaster	4	3
7. Goma-2	4	3
8. Errasti Kristaldegia	2	3
9. Speed Boys	2	3
10. El Ekipo A.	0	3
11. Fuxion	0	3
12. Whiskeria	0	3

AZAROAK 23, DOMEKA

11:50: El Ekipo A - Whiskeria.	KPPC
13:00: KPPC - Aloña Taberna.	El Ekipo A

Deskantsua: Alpargat, Etxerat, AC Surcos.

SEI FALTEN ARAUA, ORAINGOZ, ONDO

HAMAIKA METROETATIK USTE BAINO PENALTI GUTXIAGO JAURTITZEN DIRA

Zaldibarko Txapelketan dagoeneko hiru jardunaldi jokatu dituzte, eta, badirudi jendeak ondo hartu duela sei faltan araua. Taldeek lehen baino falta gutxiago egiten dituzte, badakite-eta ordainetan zer jasoko duten. Bazirudien arau horrekin askotan ikusi ahal izango zirela hamaika metroetatik egindako penalti jaurtiketak, baina ez da horrela. Norgehiagoka gutxitan egiten dute zati bakoitzean sei falta baino gehiago, eta, horrez gain, hamaika metroetako jaurtiketak gol bilakatzeko ez da batere erraza.

Aipatzekoa da, besteak beste, Alpargat-Estutu, Dribling eta AC Surcos taldeek egindako txapelketa hasiera ona. Badirudi joan den urteko Komando Alpargat taldeak ondo egin duela izena aldatu eta jende berria fitxatzen. Dribling eta AC Surcos taldeak aski ezagunak dira. Diotenez, Saukelu Scream-ek ere talde polita du aurrean.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Ordizia	Preferente. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
Sto. Lizeoa - Mondra	Ohor. gazt. Domekan. 12:00. Berion.
Arrasate - Tolosa C	Big. gazt. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
Texas Lasarteerra - Arrasate	Ohor. kadet. Domekan. 10:00. Lasarte Orian.
Urki - Arrasate	Big. Kadet. Domekan. 10:00. Elbarren.
Arrasate - Eibartarrak	Infantilak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
Mondra - Agurain	Neskek. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

ESKUBALOA

Leizaran - AGR Arrasate	Lehen territ. Domekan. 11.30. Allurralden.
Arrasate C - Hondarribia	Big. territ. Zapatuan. 17:45. Musakolan.

Groseko Coci. Gros - Arrasate B

Big. territ. Domekan. 11:00. La Sallen.	
Gatz Museoa - Urnietako	Gazteak. Zapatuan. 16:00. Musakolan.
Gatz Museoa - Hondarribia	Kadeteak. Domekan. 11:30. Musakolan.

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate - Padura	Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Arrasate - Bergara	Juniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.
BKL - Arrasate	Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Txindoki Kirolde.

ERRUGBIA

Arrasate - Durango	Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.
Arrasate - Ordizia	Kadeteak. Domekan. 10:00. Garagartzan.

ERRUGBIA

Lehenengo postuan sailkatzeko alde, oraingoz, Zarautzena da (14-12)

Mondragoeko taldeak norgehiagoka garrantzitsua jokatu zuen zapatu arratsaldean, baina David Jauregiren mutilek ezin izan zuten irabazi

XABIER URZELAI

Norgehiagoka parekatua jokatu zuten zapatu arratsaldean Zarautzek eta Arrasatek. Bi talde horiek dira euren ligako talde indartsuenak. Igoera faserako sailkatzea dute helburu, baina lehenengo postuan sailkatu gura dute.

Datorren urtean berriz ere bi liga txapelketa izango dira; aurten igoera faserako sailkatzen diren taldeek datorren urtean goiko liga txapelketan jokatu dute.

Igoera fase horretan Zarautzek eta Arrasatek egon gura dute, eta lehenengo postuan bada, hobeto. Postu hori norendako izango den erabakitzeke lehenengo aurrerapausoa Zarautzek eman zuen zapatuan. Partidu parekatua jokatu zuten, baina Zarautzek ateko jaurtiketak ondo aprobeztatuta irabazi zuen (14-12).

Oraindik, baina, partidu asko geratzeaz gain, zarautzarrek Garagartzan jokatu behar dute. Ez dago ezer erabakita.



Lehenengo postua eskuratzeko aukera paregabea galdu zuten mondragoetarrek; oraindik, baina, itzulerako partidua jokatu behar dute, Garagartzan.

ARRASATE PRESS

AGR Arrasateri, kontrarioak baino gripeak egin zion min handiagoa

XABIER URZELAI

AGR Arrasate Eskubaloi Taldea 21-20 nagusitu zitzaion domeka eguerdian Urola taldeari. Pitxi Herreroren mutilek justu-justu irabazi zuten partidua, baina balio handiko garaipena izan zen; izan ere, kontrario gogor bat atzean uzteaz gain, AGRko jokalariek askok gripeak jota jokatu zuten.

Joan den astean AGR Arrasate fundamente handi barik entrenatu zen. Arrasateko taldeko jokalariek gutxi zeuden entrenatzeko moduan, asko eta asko gripeak jota zeudelako. Hori ikusita, domekan Urolaren kontra irabaztea ia pentsaezina zen. Oraindik errekuperatu gabe zeuden jokalariekin jokatu zuen Arrasatek, eta hala ere, Mondragoeko taldeak aurrera ateratu zuen partidua.

Norgehiagoka parekatua izan zen; bi taldeetako inork ez zuen bi gol baino gehiagoko alderik lortu. Lehenengo zatia Arrasate aurretik zela amaitu zen (11-9). Alde horrek, baina, ez zuen luze iraun, bigarren zatia hasi eta berehala Urolak berdindu egin zuen-eta (14-14). Hurrengo minutuetan egoera ez zen askorik alda-



OLAIA MONDRAGON

Arrasateko taldeak ondo hasi du Liga Txapelketa, eta goiko postuetan dago.

tu; parekotasuna jokoan, baina markagailuan ere (18-18). Azken minutuetan, baina, AGR Arrasateko mutilek azken esfortzua eginda hiru gol egin zituzten (21-19), eta Urolak 20. gola egin zuenerako partidua berdintzea ia ezinezkoa zen. Mondragoetarrek azken minutuetan ez zuten baloia-aren jabetza galdu, eta gol bateko aldearekin nagusitu ziren.

Bigarren territorial mailan, ostera, Arrasate B taldeak erraz

tasunez irabazi zion Ereintza taldeari (27-18).

ISTILUAK ELGOIBARREN

Arrasate C eta Elgoibar taldeen arteko partidua bertan behera utzi zuen epaileak, Elgoibarko jarriztaile eta jokalariek erakutsitako jarrera txarra zela-eta. Epaileak partidua eten zuenean, Arrasate galtzen zebilen (14-13); ikusi egin beharko da partidu hori zertan geratzen den.

Mondrako neskek llintxa eta epailea izan zituzten kontrario

X.U

Mondra Futbol Taldeko neskek llintxaren kontra jokatu zuten zapatu arratsaldean Legazpin (2-1). Partidu zaila izan zen Mondragoeko neskendako, kontrarioaz gain, epailea ere aurka izan zuten-eta.

Zapatu arratsaldean llintxaren eta Mondraren arteko partidua epaitu behar zuen epailea ez zen azaldu. Hori ikusita, llintxako bigarren entrenatzaileak egin zituen epaile lanak. Lehenengo zatian lana txukun egin bazuen ere, bigarren zatian hartutako erabakiak llintxaren aldekoak izan ziren, nabarmen, eta horrek eragin zuzena izan zuen markagailuan.

HAIZEA PROTAGONISTA

lrintxaren eta Mondraren arteko partidua ez zen ikusgarria izan. Haizeak ez zien jokalariei gura moduan jokatzeko utzi; haizea alde zuen taldeak abantaila zeukan. Mondrak lehenengo zatian izan zuen abantaila hori, eta ondo aprobeztatutako abantaila izan zen, 33. minutuan Maitane Roak Arrasateko taldea aurreratu zuen-eta (0-1).

Bigarren zatian, baina, lrintxak izan zuen haizea alde. Eta,

ez haizea bakarrik, baita epailea ere. lrintxaren bigarren entrenatzaileak lehenengo zatian egin dako lan txukuna ahaztu, eta bere taldearen alde epaitu zuen.

ERABAKI EZTABAIDAGARRIAK

Hanka-sartze bat edozein epailek egiten du, baita bi ere. Zapatuko epaileak egin zuena, baina, ez zen hanka-sartzea izan, komeni zitzaion moduan hartu zituen erabakiak: legazpiarrek egindako faltak ikusi ere ez zituen egin; Mondrari, berriz, ez zion bat bera ere barkatu. Horrela, Maitane atezaina aurrez aurre zeukan jokaldi baten lrintxako atzelariak falta argia egin zion, baina epaileak ez zuen ezer ikusi gura izan. Hori bai, ez zuen duda izpirik izan Mondraren kontrako penalti bat adierazteko. Penalti jaurtiketa Mondrako atezainak, Sokoak, geratu egin zuen, baina ezer gutxi egin ahal izan zuen lrintxak egindako bi goletan. Normala den moduan, Arrasateko neskek amorratuta amaitu zuten partidua; partidua galtzeagatik baino gehiago, modu horretan galtzea izan zen mingarria.

Oraingo asteburuan, Jon Loitiren eta Iñigo Zabaloren neskek azkeneko postuan dagoen Aguraingo taldearen bisita izango dute Atxabalpen.

KIROLDEGIA

Zapatu goizean igerilekua itxita egongo da, igeriketa txapelketa jokatuko dute-eta

Igeriketa txapelketa goizeko hamarretan hasiko da eta hainbat herritako ordezkariak hartuko dute esku

XABIER URZELAI

Bihar goizean mondragoetarrek ezin izango dute barruko igerilekua erabili; hori bai, igeriketa txapelketaz gozatu ahal izango dute. Mondragoek ordezkariak izango ez badu ere, igerilari gazte asko izango dira bihar goizean Musakolan.

Goizean ez, baina arratsaldean herritarrek kiroldegian igeri egin ahal izango dute, txapelketa goizean bakarrik izango da-eta. Arratsaldean kiroldegiak ohiko ordutegia izango du: igerilekua 16:00etatik 20:00ak arte egongo da zabalik.

GOIZEAN IGERIKETA TXAPELKETA

Bergarako Igeriketa Taldeak eskatuta, Arrasatek igeriketa txapelketa egin ahal izateko igerilekua utzi du. Pena da Arrasaten igeriketa talderik ez egotea, bihariko txapelketan herriak ez du-eta ordezkariak izango; mondragoetarrek beste herri batzuetako igerilariak ikusita konformatu

beharko dute. Bergarako, Oñatiko, Legazpiko eta Eibarko igerilariak izango dira, besteak beste, bihar goizean Musakolan. Adin askotariko igerilariak hartuko dute esku, eta hainbat serie egingo dituzte.

HELDUENDAKO IKASTAROAK

AUKEAk helduendako igeriketa ikastaroa antolatu du. Arrasateko Kirol Erakundeak dagoeneko badu igeriketa ikastaro bat, baina datorren astelehenean aurrera beste ikastaro bati ekingo diote. Ikastaro horrek aurrera egin dezan, baina, gutxienez jende kopuru batek eman beharko du izena.

Ikastaroa, esandako moduan, datorren astelehenean hasiko da, eta saio bakoitzak 45 minutuko iraupena izango du. Ordutegi aldetik, ikastaroak eskaintza zabala izango du: 13:00etatik 13:45era, 15:00etatik 15:45era eta 16:15etik 17:00etara. Informazio gehiago gura izanez gero 943 77 16 77 telefonora deitu, edo kiroldegiko bulegora jo.



Goizean igeriketa txapelketa izango bada ere, arratsaldean igerilekua erabilgarri egongo da.

Ointxe Arrasatek luzapenean galdu zuen norgehiagoka (73-69)

X.U.

Aukera paregabea galdu zuen Ointxe Arrasatek joan den asteburuan. Mondragoeko taldeak igoera faserako sailkatzea du helburu, baina azken partidua galtzea atzerapausoa izan da. Gorka Zurutuaren mutilek lau puntuko aldeagatik galdu zuten.

Lortutakoa baino gehiago merezi izan zuen Ointxe Arrasatek joan den astean. Caja Rural Ardoiren kontrako partidua oso garrantzitsua zen, bi taldeak igoera faserako sailkatzeko lehian daude-eta. Partidua irabaziz gero, mondragoetarrek gora egingo lukete sailkapenean, baina, tamalez, ez zen horrela izan.

INDARRAK PARE-PAREAN

Nafarrek etxean jokatzearen abantaila izanda ere, ez ziren mondragoetarrek baino gehiago izan. Partidu oso parekatua izan zen; horrela, laugarren laurdena amaitutakoan, markagailuak 58-58 erakusten zuten. Normalean baino saskiratze gutxiago egin zituzten bi taldeek; biak hala biak erasoan baino defentsa lanetan hobeto ibili ziren seinale.

Norgehiagoka berdinduta,



ARRASATE PRESS

Bihar arratsaldean kontrario gogorra izango da Iturripen.

partidua bost minutuan erabaki zen; luzapenean, hain zuzen.

LUZAPENEAN, ZORTE TXARRA

Norgehiagoka parekatua izan bazen ere, luzapeneko bost minutuak ondo baino hobeto aprobetxatu zituen talde nafarrak. Arrasateren kontrarioak ondo jokatu zuen luzapeneko lehenengo minu-

tuetan; erasoko jokaldiak ondo eginda aurre hartu zuen markagailuan. Horrez gain, Ointxe Arrasatekoek jaurtiketa libretan huts asko egin zituzten. Azken bost minutu horiei etekin hobea aterata nagusitu zen Caja Rural Ardoi taldea. Bihar, bigarren postuan dagoen Paduraren kontra jokatu dute Iturripen.

FOTOKIROLA



Markel Blanco lehena izan zen Irunen

Joan den asteburuan jokatu zen Irungo Hiria 35. krosean Markel Blanco korrikalari arrasatearra lehena helmugaratu zen. Markelek 4.350 metroetako lasterketan hartu zuen esku, kade-te mailan. Alebin mailan, Iñigo Uribarren hamaikagarrena izan zen, eta gazte mailan, Endika Donay hogeita hirugarrena. Beterano mailan, Mari Jose Gil bosgarrena izan zen; eta, gizonezkoetan, Javier Mentxaka ere bosgarren helmugaratu zen. Cesar Diez hogeita hamalagarrena izan zen. (X.U.)



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute, 18:30ean.

Santa Zezilia eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, Arrasateko Musika Eskolak, Goikobalu abesbatzak eta txistulari taldeak hainbat ekitaldi antolatu dituzte Santa Zezilia -musikarien patroia- eguna ospatzeko. Datorren astean ere egingo dituzte ekintzak.

Bihar, zapatua, Santa Zezilia eguna da, musikarien patroia. Hori dela eta, Goikobalu abesbatzak eta Arrasateko Musika Eskolak hainbat ekitaldi antolatu dituzte, nork bere kabuz.

Arrasateko Musika Eskolak egitarau zabala antolatu du: gaur, egubakoitza, eskolako ikasleek kontzertua egingo dute Musika Eskolan. 18:30ean izango da eta gura duten guztiak joan ahal izango dira kontzertua ikustera. Sarrera doan izango da.

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kalejira egingo du herriko kaleetan. 19:30ean izango da eta Arrasate Musika Eskolako txistularien eta gaitarien laguntza izango dute. Besteak beste, honako kantuak eskainiko dituzte: Beobideren *Gora Uzkudun*, Muxikaren *Aupa Katxo*, Onraitaren *Tomas Acebal 'el bala'* eta *Pasodoblea*. Iker Olazabal da bandaren zuzendaria. Olazabal orain dela gutxi hasi da

lan horretan, eta gogor ekin dio egin beharrekoari.

EUSKAL MUSIKA HIZPIDE

Dena den, Santa Zezilia ospatzeko ekitaldiek datorren asteburuan ere jarraituko dute. Egubakoitzean, azaroaren 28an, Arrasateko Musika Eskolak musikaren gaineko berbaldi interesgarria antolatu du. Jose Ignacio Luzuriaga izango da hizlaria. Luzuriaga Donostiako Goi Mai-

lako Kontserbatorioko Musikologia, Folklore eta Kantu Gregoriano katedraduna da. Sozialogoan aditua ere bada, baita idazlea eta euskal kulturaren ikertzailea ere.

Berbaldia egubakoitzean izango da, Arrasateko udaletxeko osoko bilkura aretoan, 19:00etan, eta hitzaldiaren leloa honako hau izango da: *Zer da eta nora doa Euskal Herria. Zer da eta zer ez da Euskal Musika?*

GOIKOBALUK ABESTU EGINGO DU

Goikobalu abesbatzak, berriz, Arrasateko Musika Eskolak baino egitarau xumeagoa antolatu du Santa Zezilia egunerako. Hain zuzen ere, 20:00ak aldera, abesbatzako hainbat lagunek txikiteoa egingo dute, eta tabernaz taberna eta kalez kale kantuan ibiliko dira. Horren ostean, Goikobaluko lagunek herriko jatetxe baten afaria egingo dute.

TXISTULARIEKIN DANTZA-PLAZA

Bihar, zapatua, txistulariek Arrasateko Musika Eskolako Bandarekin kalejira egingo duten arren, hori baino lehenago, 18:30ean, dantza-plaza egingo dute. Hau da, Herriko Plazan fandangoa, arinarinak eta beste dantza batzuk egingo dituzte. Beraz, denetik egongo da Santa Zezilia egunean.

Kontzertuez gain, Arrasateko Musika Eskolak berbaldi interesgarria antolatu du

Bihar, zapatua, Goikobaluko lagunek kalez kale txikiteoa kantuan egingo dute



TOP MODEL

Silueta eskultorea

Bularrak handitu eta gainera ipurmasailak mehetzen ditut!



Esklusiba mundiala

✓ Gure laborategietan egindako ikerketen ondorioz, Alfa2-Liberador printzipio aktiboak behar ez dugun koipea ASKATZEN du mokor, izter eta tripatik bularetan EGOKITZEKO, AGR-Transbuslyl-en akzioari esker, eta horrela bolumena, irmotasuna eta tonizitatea hobetzen dira.

Emitza esanguratsuak; laugarren astetik aurrera antzemango dituzu.

Patente eskusibo erregistratua

Piaubert: edertasunak bere Metodoa du.

Zatoz ezagutzera:
LORE
Olarte kalea 10.
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

Lore

Eta gainera dohainik aurpegirako tratamendu taila bat eskaintzen dizugu, zure azal koloreari egokitua

Mercedes Farriolsen eskutik, genero-biolentziaren gaineko ikuskizuna

IKER BARANDIARAN

Domekan, azaroaren 23an, Mercedes Farriols aktore eta abeslariak *Encarnación* izeneko ikuskizuna egingo du. Amaia Udal Antzokian izango da, 19:30ean. Emakume Sailak antolatatu du.


Datorren martitzena, azaroaren 25a, Genero Biolentziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da. Horren harira, etzi, domeka, Emakume Sailak ikuskizuna antolatatu du Amaia Udal Antzokian.

Buenos Airesko (Argentina) Mercedes Farriols aktore eta abeslariak *Encarnación* lana eskainiko du. Mercedes Farriolsek ibilbide luzea egin du emakumeen eta bikoteen gaia liburuetan eta antzezlanetan erakusten. Askotan umorea eta ironia erabiltzen ditu, baina funtsean ezkutuan dauden arazoak eta zailtasunak gordinik azalerraten ditu.

EMAKUMEEN GAINKO IKERKETAK

Mercedes Farriols, besteak beste, honako arloetan lan egiten ibili da: gionista, poeta, eleberrigile, irakaslea, zuzendari eta aktore, hain zuzen ere. Besteak beste, antzerkirako hamazazpi bat lan idatzi izan ditu. Emakumearen gaiaren gainean honako ikerketa egin zuen: *Emakumezko indigena-emakumezko urbanoa*. Ikerketa horri esker, Argentinako Arteetako Beka Nazionala eman zioten.

Aspaldi honetan, Europan eta Argentinan lanean dabil bere bi



ARRASATE PRESS

Mercedes Farriolsek ospe handia dauka Argentinan, baita Europan ere.

azken ikuskizunekin: *Emakumezko indigena-emakumezko urbanoa*; eta *Encarnación*. Azken hori, Arrasaten eskainiko duena, genero-biolentziaren gainekoa da. Ikuskizun horretan, aktore eta abeslari lanak uztartzen ditu. Hain zuzen ere, Mercedes Farriolsek taula gainean kontatzen duen istorioan tangoak abestu eta dantzatuko ditu.

Ikuskizuna hasterakoan, Mercedes ezkongai soinekoa jantzita agertuko da. Amak ezkontuta ikusi gura zuen, baina kontua ez da hain alai. Poliki-poliki, Mercedesen pertsonaiak gorputzean dituen ubeldurak erakutsiko ditu, eta bikotekidearekin bizi duena kontatuko du. Ironia badu, baina, era berean, lan gordina ere bada.

Corazon de Encina elkartearen egoitzak hamar urte bete ditu

I.B.

Corazon de Encina Extremadurako kultur elkarteak egoitzaren hamargarren urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu du. Ekitaldiz betetako asteburua egingo dute, eta denetik egongo da.

Corazon de Encina Extremadurako kultur elkarteak egoitzaren X. urteurrena ospatzen dihardu. Joan den zapatuan eta domekan, azaroaren 15ean eta 16an, mahai-jokoen txapelketako finalerdiak jokatu zituzten.

Gaur, egubakoitza, poesia eta idazkera lehiaketak egin dituzte, 17:00etan. 18:00etan, oster, Corazon de Encina elkarteak gazteria taldeak jokoak eta lehiaketak antolatatu ditu. Horren ostean, gura duten ume eta gazte guztiendako txokolate-jana egingo dute.

20:00etan, Extremaduraren gaineko bideo emanaldia egingo

dute. Geroago, afalostean, 23:00ak aldera, elkarteak kideen eskutik play-back jaialdia izango da. Elkarteak kideak halako ikuskizunen oso zaleak dira, eta ziur, protagonistak zeintzuk diren ezagututa, barre handiak egingo dituztela.

Zalantza barik, gaurko (egubakoitza) gauak luze joko du. Play-back jaialdiaren ostean, 00:00etan, elkarte bereko Isabel, Loli eta Juanak abestu egingo dute. Eta 01:00etan nagusiendako txisteak kontatuko dituzte.

*Gaurtik,
egubakoitza,
domeka goizaldera
arte ez dute
atsedenik izango*

ANTZERKIA, BAZKARIA ETA JOKOAK

Bihar, zapatua, aurreko gaueko nagiak kendu eta 12:00etan, Extremaduraren gaineko diapositibak emango dituzte. 13:00etan, Extremadurako ardoekin ohorezko topa egingo dute. Geroxeago, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute; menua Extremadurako eltzeko tipikoa izango da.

16:30ean, mahai-jokoen finalak jokatu dituzte. Behin txapelketa bukatuta, gazteria saileko arduradunek txapelketako sariak banatuko dituzte.

19:30ean, antzerki ikuskizuna egingo dute. Elkarteak Amanecer Extremeño antzerki taldeak saioa eskainiko du. Alvarez Quintero anaiek idatzitako *La Risa* antzezlan egokitu eta beratu antzeztuko dute.

Asteburuko ospakizunak bukatzeko, 23:30ean, Gardoki anaiek alaitutako dantzaldia egingo dute. Ez dute atsedenik hartuko San Andresen duten egoitzan!

AEDren XX. urteurreneko ekitaldi mordoa asteburuan

I.B.

AEDren XX. urteurrena dela-eta, ekitaldi mordoa antolatatu dituzte. Bihar, zapatua, bertso bazkaria egingo dute. Etzi, domeka, *Mugariz Mugarri Arrasate ezagutzen* ekimena egingo dute.

AEDk egitarau zabala antolatatu du elkartearen XX. urteurrena ospatzeko. Dagoeneko ekitaldi batzuk egin dituzte, baina asteburuan badago zer ikusi eta zer egin. Bihar, zapatua, bertso bazkaria egingo dute Uarkape pilotalekuko jatetxean. Gonbidatu bereziak Xabier Amuriza eta Jon Maia izango dira. Baina, horiez gain, Jokin Labaien arrasatearra, Manex Agirre aramaiarra eta Enaitz Alustiza bergararra ere bertsoan ibiliko dira. 14:30ean egin dute hitzordua eta txartelek 15 euro balio dute.

'MUGARRIZ MUGARRI'

Etzi, domeka, AEDk bi ekitaldi antolatatu ditu. Batetik, goizean, AKPrekin lankidetzan, *Mugariz*


Mugarri Arrasate ezagutzen ekimena antolatu du. Iluntzean, oster, *Eskubiko pareta* izeneko ikuskizuna egingo dute gaztetxean.

Mugariz Mugarri ekimeneko hitzordua 09:00etan egin dute, Arbolapetan. Paseoan Arrasateko mugan dauden inguruak ikusiko dituzte. Oraingo honetan, Aretxabaletako eta Oñatiko lurrekin mugan dagoen Txaxeta ibarra bisitatuko dute. Han, besteak beste, Andramari Zuri ermita eta Loramendi jaio zen baserria ikusiko dituzte. Ospitale ostetik Bedoña inguruetara joko dute.

JOKIN ZAITEGI LEHIAKETA

Abenduaren 4an, Jokin Zaitegi lehiaketari esker argitaratu duten *Zoririk ez* liburua aurkeztuko dute. Jatorrizkoa Imre Kereszek idatzi zuen, eta Urtzi Urrutikoetxeak euskaratu du.

Aurkezpen ekitaldia 19:00etan egingo dute, Monterronen. AED eta Elkarlanean argitaletzeko ordezkariak izango dira, baita Urtzi Urrutikoetxea ere. Horren ostean, Palestinaren gaineko diapositibak emango dituzte.



IKER BARANDIARAN

Oso taila lan politik aurkituko dituzue Harresi aretoan

Tailaginen erakusketa ipini dute Harresi aretoan

I.B.

Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa ipini du Harresi aretoan. Atzo, eguna, zabaldu zuten eta elkarteak kideen 120 bat lan erakusgai ipini dituzte. Abenduaren 3a arte egongo da zabalik erakusketa.

Arrasateko Tailaginen Elkarteak erakusketa ikusgarria ipini du Harresi aretoan. 120 bat lan aurkituko dituzue. Besteak beste, erlojuak, kutzak, armariak, Portaloia, lauburuak eta bestelakoak egin dituzte.

Arrasateko Tailaginen Elkarteak (ARTE) 1982an sortu zuten. Taldeak bilakaera handia izan du,

eta azkeneko urteotan Uribarrin Udalaren lokal txiki baten batzen dira. Aspalditik, urtero, Udalarri beste lokal bat uzteko eskatzen dihardute, egun erabiltzen dutenak egutegi eta orduetegi murrizta dauka-eta.

JARDUERA HERRIAN ZABALTZEA

ARTEk sorreran bi helburu finkatu zituen, eta horiek indarrean jarraitzen dute: tailagintza-jardueraren herritarren artean zabaltzeko, urtero bi ikastaro antolatzea, bata hastapenekoa eta bestea sakontze mailakoa.

Horrez gain, herritarrei tailagintzaren berri emateko, urtero Santamasetako artisau erakusketan hartzen dute parte.

E, TXO!

GUREGAIK/ 'ESKUBIKO PARETA' IKUSKIZUNA

LUDOTEKA IBILTARIA SAN ANDRES AUZOAN

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria eramango du San Andres auzora. 3 eta 12 urte bitarteko umeek 11:00etatik 13:30era izango dute hitzordua Bedoñabe eraikinean.

TXIKILANDIA PARKERAKO BEGIRALE DEIALDIA

Txatxilipurdik Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko izenemate epea zabaldu du. Begirale izan gura duenak Txatxilipurdira jo beharko du, eta zera eraman: NAREN fotokopia eta argazki bat.

GAZTETXEKO KONTZERTUKO DIRUA NAFARROA OINEZERA

Joan den zapatuan, Never Surrender talde arrasatearrak eta Korrosion Zerebral azpeitiarrak kontzertua egin zuten gatzetxean. Batutako diru guztia Arangoiti ikastolari eman diote.

GABONETAKO POSTALERAKO MARRAZKI LEHIAKETA

Txatxilipurdik Gabonetako postalerako marrazki lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko azkeneko eguna azaroaren 28a da. Ludotekako bazkide ez direnek Txatxilipurdira eraman beharko dituzte lanak. Izen-abizenak eta telefonoa ere ipini.

Mikelazuloko lagunek galdera metafisikoak egingo dizkigute

IKER BARANDIARAN

AEDren 20. urteurreneko ekitaldien barruan, etzi, domeka, Mikelazuloko kultur elkarteko lagunek *Eskubiko pareta* ikuskizuna egingo dute. Gatzetxean izango da, 18:30ean.

AEDk egitarau zabala antolatu du elkartearen 20. urteurrena ospatzeko. Gazteei zuzendutako ekimenen artean, honako ikuskizuna nabarmenduko genuke: etzi, domeka, Mikelazulo kultur elkarteko lagunek *Eskubiko pareta* ikuskizuna egingo dute gatzetxean, 18:30ean.

Orain dela urte batzuk, Oretako gazte batzuek Mikelazulo elkarte sortu zuten. Poesia, pintura, antzerkia eta bestelakoak egiten zituzten lagunentzako bilgunea sortu gura zuten.

Lokala eskuratu eta denbora gutxira, ikuskizunak egiten hasi ziren. Orain arte, besteak beste, *Letren kilimak* eta *Gorria* izeneko lanak antzeztu dituzte. Iaz Mikelazuloko bost lagun *Eskubiko pareta* ikuskizuna izango zena prestatzen hasi ziren. Kideetako bat Irakera joan zen brigada internazionalekin lan egitera eta beste bat *Egunkaria*-ko langilea zen. Hark ere nahiko buruhauste izan zituen *Egunkaria* itxi zutenean. Hala, bi arrazoi horiengatik lan horren prestaketa lanak atzera-

*Poesia, antzerkia,
margolanak eta
bestelakoak
batuko dituzte
taula gainean*


*Ikuskizun horrek
galdera
metafisikoak
eta umorea
uztartzen ditu*

tu egin ziren.

Aurtengo irailean estreinatu dute *Eskubiko paretak* ikuskizuna, eta dagoeneko Oreretan, Donostian, Senperen, Pasai Antxon eta Oiartzunen eskaini dute. Domekan Arrasaten izango dira, eta hitzartu dituzte eman-kizunak beste hainbat eskualdetan ere.

ANTZERKIA, POESIA, PINTURA...

Mikelazuloko lagunek hainbat gauza uztartzen dituzte euren ikuskizunetan. Esaterako, *Eskubiko pareta* lanean hitz-jokoak,



MIKELAZULO

Mikelazulo elkartearen *Eskubiko pareta* lana oso ikusgarria da.

margolanen proiektzioak eta poemak antzeztu egiten dituzte. Askotan aktoreak proiektzioaren barruan sartzen dira, margolanekin bat eginez.

GALDERA METAFISIKOAK, UMOREZ

Eskubiko pareta ikuskizunean aktoreek euren buruei galderak egiten dizkiete; eta, bide batez, ikusleei ere egiten dizkiete. Galdera metafisikoak egiten dituzte, baina umore dosi handiarekin.

Mikelazuloko kideen esanetan, lan horrek gogoeta eta barrea uztartzen ditu. Elementuei dago kienez, beste hainbat gauza uztartzen dituzte: antzerkia, poesia, margolanen proiektzioak...

Ikuskizuna euskara hutsean egiten dute eta, era berean, adin guztiei zuzenduta dago. Mikelazuloko lagunen esanetan, ikusleak gehienetan gazteak izaten dituzten arren, ez dute berez asmo horrekin egin.

"PAL"

Burindegia

Brikolajea

Tresneria

Urbarri etorbidea 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

arbolapeta



arrasate

beinke



García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotatuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

ESKORIATZA



Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita
ESKORIATZA

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

PUB
HAIZEA



BEHEKODENDATIK

Aitor Astaburuaga

TTUKUN FOTOKOPIAK

XABIER URZELAI

Aitorrek 18 urte egin ditu Ttukun fotokopixa dendan lanien. Fabriketan lanik ez, eta fotokopixa dendie zabalketie erabaki euen. Sasoi txarrak zien, eta lagunek zoratute euen galdeketa eutzien. Fotokopixa denda gutxi euzen, baiñe apurka-apurka aurrera egin dau, batzuetan gogorra izen bada be.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Futbolista.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bai, futbolistak ondo bizi die.

Ibarretxe Plana: ze pentsetan jatzu?

Leiduteko gatxa dala.

Drogak legalizauko zeuke?

Duda barik.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Tomates verdes fritos / Umie dala-eta bakunen gaiñeko liburue da irakurri doten azkena / AC/DC moduko taldiez gain, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa be asko gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?

Afrikara.

Bizio bat?

Gutxi dauket, baiñe dauketan ez dutzut esango.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Etxeko lana baiño gehixau, momentue izeten da erabakigarrixena. Ez badau gogorik, erratza pasetie be gogorra egitten da.

Jateko gustoko zerbait? Eta edateko?

Jateko, legatza; edateko, barriz, ardaue edo sagardaue.

Zerk arduraketan zau?


Mondraguen atxilotu barri dittuenak zelan egongo dien.

Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeinekin?

Hori egingo baneu, geure artien geratuko litzake.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Papela.



“Mondragueko atxilotuen egoeriek arduraketan nau; eta asko, ezagunek die-eta”

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Atxilotu barri dittuen mondraguetarrak libre dauzela.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Betik egin izen dogun arrazoiengaittik: Euskal Herrixen pakie lortzeko, presuek etxera etorteko...

Dendien izenakin, lana beti txukun egin biher...

Ahaleginddu egitten gare, baiñe beti ez dogu lortzen.

Fotokopixak egin eta egin: horrenbeste leiduten dogu?

Baietz esango neuke. Gaiñera, beti ez dogu papela fotokopixetan.

Ze fotokopixetan dozue ba?

“Behin, kulero batzuk fotokopixetako eskatu euskun kliente batek. Gaiñera, kulero polittekin zien”

Behin kulero batzuk fotokopixetako eskatu euskun kliente batek. Polittekin zien, gaiñera.

Eta, zenbat txuleten konplize zaren...

Oin gutxiau, jentiek ordenorien egitten dittu-eta txuletak. Lehenau, baiñe, txuleta asko egitten zien hamen.

Horman iragarki asko eukitten ditzuzu. Zeuk deittu dozu iñoix?

Ez. Egixe esatiarren, ez dutziet kasu haundirik egitten. Jentiek horman jarten dittu, baiñe askotan ze dauen be ez dok jakitten.

Bukatu esaldixe: lan bat txukun entregaute badau...

Gustorau geraketan gare.

NIREBIDAIAHURA / Alaitz Morras

Nikaragua / 2003ko urtarriletik maiatzera arte

Irakasle ikasketak egiten zebilela, praktikak egitera kanpora joateko aukera izan zuen Alaitzek, baina Arrasaten geratzea erabaki zuen. Hori bai, argi zeukan ikasketak amaitutakoan, lan apur bat egin, eta irabazitako diruarekin bidaiatu egingo zuela. Esan eta egin: urtarrilean joan zen Alaitz Nikaraguara, baina ez zen bakarrik joan, Arrasateko eta Aramaioiko bi lagun, Nerea eta Olatz, berarekin joan ziren-eta. Bidaiaren helburuetako bat beste lurralde bat ezagutzea zen, baina ez ziren horretara bakarrik joan: irakasleak hirurak, Nikaragua-ko eskolaren baten ahal zuten neurrian laguntzera ere joan ziren: “Alde horretatik zorte handia izan genuen; izan ere, aireportura gu jasotzera etorri zen Kataluniako lagun bati esker berehala topatu genuen lana Movimiento Comunal Nicaraguense taldean”.



“Hango egoera ikusita gure asmoak erabat aldatu ziren”

Nikaraguako hezkuntza sistema bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten han, eta ikusitakoak ez zituen askorik animatu: “Hango jendeak pentsatzeko beste modu bat dauka. Bizitzan makilakada mordoa hartu dituzte, eta ez dute gauza berriak egiteko ilusiorik. Gauzak egiteko nahiarekin joaten zarenean, horrek atzera botatzen zaitu, eta zuretako garrantzitsua den gauza batek, akaso, eurendako garrantzi txikia du”. Eskolak normalean goizetan izaten zituzten: “Eskoletara umeak uniformearekin etortzen ziren, baina arratsaldean ume bera ia biluzik ikusten genuen, kalean. Pobrezia handia dago han; umei eskolan esnea ematen genien, eta bagenekien ume batzuek emandako esnea zela eguneko elikagai bakarra. Akaso, ezkorra izango naiz, baina hango egoera ikusita gaitza da datozen urteotan Nikaraguako egoerak hobera egitea”.

Alaitzek lau hilabete egin zituen Nikaraguan, Nereak zortzi hilabete eta Olatz oraindik han dago. Datorren astean ere eurekin jarraituko dugu; han egin zuten bidaiaren bat edo beste kontatuko dizuegu.

XABIER URZELAI



Alaitz, Nerea eta Olatz Kataluniako lagunekin, eta hango umeekin.

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

ZAHARREN ETXETIK



Lagun askok eta askok ezinbesteko laguntza ematen diete gaixo dituzten senideei.



Ezintasun fisiko edo psikikoa dutenek laguntza handia behar izaten dute.

Etxekoak, zaharren zaintzaile ohikoenak

IKER BARANDIARAN

Eusko Jaurlaritzako Ongizateko zuzendariak aditzera eman duenez, gaur egun, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian ezintasun fisiko edo psikikoa duten 86.762 edadetu daude. Horietako batzuek endekapenezko gaixotasunak dituzte, beste batzuek demenziak eta beste batzuek gaixotasun kardiobaskularrak. Gaixotasun horiek dituzten edadetu gehienak, 57.000 bat lagun, euren etxetan bizi dira. Datu horiek aintzat hartuta, Ongizateko zuzendariak uste du beste horrenbestek 57.000 lagunek euren senitar-

tekoak, gaixo daudenak, zainduko dituztela.

Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, zaintzaile horien profila honako hau da: emakumezkoa, 44 eta 60 urte bitartekoa eta, kasu gehienetan, gaixoaren bikotekidea, ama edo alaba izan ohi da.

BIZI-ITXAROPENA HANDITUZ DOA

Bizi-itxaropena handituz doan heinean, geroago eta lagun zahar gehiago daude. Izan ere, EAEn bizi-itxaropen ertaina 79,5 urtekoa da. Horren ondorioz, lagun horiek zaintzeko geroago eta lagun gehiago beharko dira.

EAEn, batez beste, 65 urtetik gorako 350.000 lagun inguru bizi-

dira; biztanleriaren %18, hain zuzen ere.

Ongizateko zuzendariak aditzera eman duenez, horietako 12.000 lagun zaharren egoitzetan daude; 1.500 lagun eguneko zentroetan; eta beste 15.000 lagunek etxeko laguntza jasotzen dute.

Horien guztien aldean, edadetu asko eta asko etxekoek edo senitartekoei zaintzen dituzte. Horregatik, adituek diote oso garrantzitsua dela zaintzaile horiek zaintzea: "Senide horiek izugarritzko giza lana egiten dute, eta eurek laguntzen duten moduan horiei laguntzea ezinbestekoa da".

Etorkintza Fundazioko adituek zaintzaileak zaintzeko egin duten programaren berri eman zuten. Hain zuzen ere, webgune bat zabaldu dute: www.cuidador.com. Webgune horren bitartez, EAEn ezintasunak dituztenei laguntzen dizkieten 57.000 lagunei laguntza eta konponbideak eskaintzen dizkiete.

Orain dela bi urte, Etorkintza Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Ongizate Sailarekin batera, zaintzaileak laguntzeko programa hori jarri zuen abian.

Etorkintza Fundazioko arduradunen esanetan, programa horren asmoa da zaintzaileek mota guztietako laguntza eta babe-

sa edukitzea. Are gehiago, webgune hori interaktiboa da. Beraz, zaintzaile batek kezka bat badu, webgunean argi dezake edo galdera bota dezake. Ahalik eta lasterren dagokion erantzuna jasoko du.

Horrez gain, Fundazioko webguneak laguntza psikologikoa eskaintzen du; interesatzen zaizkien gaien gainean eztabaidatzeko foroa dute, zaintzaileak espezializa daitezten trebetasun taldea eratu dute, eta abar...

Bestalde, fundazio hori Bilbon dagoen arren, zaintzaileari laguntza eskaintzeko telefono bat jarri dute. Honako hau da zenbakia: 944 44 42 49.



Gesalibarko erretiratuen jaia

Joan den domekan, Gesalibarko erretiratuei omenaldi egin zieten auzoan. Hogeita hamar bat erretiratu batu ziren. Meza entzun ostean, dantzariak aureskua dantzatu zieten, eta, trikitixa doinuek alaituta, erretiratuek GOITBko kazetarien galderei erantzun zieten.

Horren ostean, auzo elkarrean bazkaria egin zuten. Auzo alkatetzak guztiei hainbat opari egin zizkien, eta han batutako gizonezko eta emakumezko zaharrenari omenaldi berezia egin zien: Hain zuzen ere, Aldape baserriko Simon Aranari (92 urte) eta Euzketa baserriko Florencia Pagaldairi (93 urte). /A.B.

LABUR

Uribarriko erretiratuak Donostiara

Abenduaren 21ean, Uribarriko erretiratuek Donostiara txangoa egingo dute; hain zuzen, Santo Tomasko azoka ikustera joango dira. Egun-pasa egingo dute, ondo bazkaldu eta azoka ikusi. Aspalidiko ohitura dute egun horretan Donostiara joatea. Dagoeneko zabalik dago izenematea. Abenduaren 10ean bidaira joateko zozketa egingo dute, 17:00etan. 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestalde, dagoeneko abian daude pintura eskolak. Interesatuek bulegora edo ikastarora bertara jo beharko dute zuzenean.



ARRASATE
Danel Iborra
Azaroaren 19an, 10 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Oier Agirrezabalaga
Azaroaren 21ean, 26 urte.
Zorionak! Arrasateko familiaren partetik.



ARRASATE
Luis Orobenkoa
Azaroaren 19an, 65 urte.
Zorionak, aitaita! Beñaten partetik.



ARRASATE
Martxel Bengoa
Azaroaren 23an, 1 urte.
Zorionak! Ainhoa eta etxe-koak.



ARRASATE
Alberto Diaz de Gereñu
Azaroaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Errotagaine-koak..



ARRASATE
Juli Berezibar eta Beatriz Garai
Julik azaroaren 25ean, 87 urte eta Beatrizek urtarrean egingo ditu urteak. 70 urte bete dira elkar ezagutu zute-
netik eta lagun-minak dira. Zorionak, bie!



ARRASATE
Izar Mondragon
Azaroan 20an, 7 urte. Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Jone Ezkurra
Azaroan 19an, 24 urte.
Zorionak, *morena!* Raulen partetik.



ARRASATE
Leire Moreno
Azaroaren 24an, 12 urte.
Zorionak! Iratxeren eta gurasoen partetik.



ARRASATE
Iker San Miguel
Azaroaren 22an, 20 urte.
Zorionak! Zuk dakizun baten partetik.



ARRASATE
Iban Delgado
Azaroaren 24an, 7 urte.
Zorionak! Judith, Nerea eta Oihana.



ARRASATE
David Blanco
Azaroaren 21ean, 26 urte.
Zorionak! Gurasoak eta Pablo.




ARRASATE
Andoni Goiti
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, *Toño!* Goienako lankideak.



ARRASATE
Haritz Ezpeleta
Azaroaren 20an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Katalina Zaramendi
Azaroaren 19an, 91 urte.
Zorionak! Ane, Odei, Marije eta Imanol.



ARRASATE
Emma eta Mikel Pablos
Azaroaren 19an, urte bat. Zorionak! Aitita, amama, Naiera eta Jonen partetik.




ARETXABALETA
Danel Seijo
25ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.



ARRASATE
Joné Elortondo
Azaroaren 19an, 7 urte.
Zorionak! Aitaren, amaren eta aitajaunaren partetik.



ARRASATE
Danel Gonzalez
Azaroaren 19an, 3 urte.
Zorionak! Gurasoak eta aitaita eta amama.



ARRASATE
Juanito Osinaga
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Plautxiko familiaren partetik.



ARRASATE
Lara Garcia
Azaroaren 25ean, 2 urte.
Zorionak! Maite zaitugunok.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora
Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



"PILOTA" LIBURUA

Zein da argazkian ikusten duzuen pilotaria?
Arrastoa: Zubillagan haren izen bera duen pilotalekua dago.



Súper BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Milka txokolate esneduna
125g-ko tableta 3X2ko sorta

1,38€ 230 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELI GARAIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Eli!
Galderen erantzun zuzena:
Biteri Eskolak.

ARRASATEKOHISTORIA

Maalako Errabalaren nondik norakoak

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

Errabal berba arabieratik dator; *herritik kanpora dagoen auzoa* esan gura du. Mondragoek harresitik kanpora zituen hiru auzoetako bat zen Maala.

Banco Guipuzcoanoren eraikina dagoen lekuan hasten da kalea, eta Aldai kanposantura igotzeko aldapan bukatzen da. Hasteko, Maalan dagoen Banco Guipuzcoanoren eraikina aipatu beharra dago; Adan de Iartzaren etxea ere esaten zaio etxe horri. Etxeak bi armari ditu aurrealdean: Barrutiarena eta Salinasena. Adan de Iartza abizenari dagokionez, Adan eta Yarza leinuen arteko loturatik dator. Hortik jaio zen Fernando Adan de Iartza, eta Udalako Salinas eta Barrutia oinetxeetako Ramona de Zenika eta Gaztañaduirekin ezkondu zen. Familia hura 1920. urte ingurura arte egon zen etxe hartan, harik eta Banco Guipuzcoanoan ipini zuten arte.

Maala kalean dagoen beste etxe aipagarri bat Okendo etxea da. Barrutia-Zelaa familiaren oinetxea da. Batez ere etxearen aurrealdean dagoen armarria

Errabal berba arabieratik dator; 'herritik kanpora dagoen auzoa' esan gura du

Maalako Errabalean ermita bat eta ospitale bat zeuden; 1771n bota zituzten biak

da nabarmentzekoa, baita balkoiak ere. Oinetxe izateari utzi zionetik, denetarik egon izan da Okendo etxean: burdindegia, altzari-denda, kuartela, zinematografoa...

Eta ezin ahaztu kale hartan zegoen Sola jauregia. Maalako zubiaren ondoan zegoen. Besteak beste, 10.000 m²-ko lorategiak eta basoak inguratzen zuten. Gaur egun, lorategi



GORKA MORRAS

Aipagarriak dira Maalako Errabalean dauden bi etxe: Banco Guipuzcoanorena eta Okendo etxea.

horretan Grupo San Juaneko etxeak daude.

Bestalde, esan beharra dago jauregi hori eraiki zuten lekuan Maalako Amabirjinaren ermita egon zela. Oso-oso antzinakoa

zen. Badago, adibidez, ermita horren gainean 1073ko aipamen bat. Labairuk zioen halako lekuetan Gaztelako erregeek foruen zina egiten zutela. Eta Maalako ermitaren ondoan

ospitale bat ere bazegoen: Maalako ospitalea edo San Lazarokoa. 1448ko Arrasateko erreketan aipatu zuten, esate baterako, ospitale hura. Ermitarekin batera bota zuten, 1771n.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko azaroaren 21a / 86. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02



Besteak beste, gazte lokalen gainean gazteek egindako eskaera aztertu zuten zinegotziek.

Orotariko gaiak landu zituen udalbatzarrak eguaztenean

UBANE MADERA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak eguaztenean. Besteak beste, gazte lokalak, Azkoagako abadetxea, bi mozio eta Euskal Fondoak egindako eskaera bat aztertu zituzten.

Saharar errefuxiatuak bizi diren Aljeriako gune batean euri zaparrada handiak izan dira azkenaldian. Horren ondorioz, uholdeak sortu dira, eta kalte ugari eragin dituzte. Hain zuzen ere, kalteoi aurre egiteko dirulaguntza eskatu dio Euskal Fondoak Aramaioko Udalari. Eta, eguazteneko batzarrean, Udalak 1.200 euro emango dituela onartu zuen.

GAZTE LOKALEKIN BUELTA

Gazte lokalen gaia ere aztertu zuen udalbatzarrak. Gazteek Udalari egindako eskaera, hain zuzen. Horren arabera, gazteek gura dutena da lokal horiek erabiltzeko gutxieneko adina 14 urtekoa izatea eta ez ezartzea lokaletatik irteteko adinik. Horrez gain, proposatzen dute koadrila bakoitzeko ordezkariak izendatzea lokaletan sartzen diren gaz-

teak zaintzeko eta sor daitezkeen kalte-ordainen gainean-eta berba egiteko.

Bestelako puntuen artean, lokalen ordutegiari dagokionez, gazteek proposatzen dute ez ezartzea ordutegi mugarik.

Eskaera aztertu ostean, zinegotziek honako erabakia hartu zuten: beharrezkoa dela lokaletatik irteteko adina ezartzea, eta 20 urte egokia dela horretarako. Eta, ordutegiari dagokionez, diote 01:00ak arte zabalik egotea nahikoa dela. Eta, jakina, horrez guztiaz gain, lokalon garbiketa kontuak ere gazteekin zehaztu beharko lituzketela.

Orain, erabakitakoa gazteei jakinaraziko diete, eta haiek erabaki beharko dute proposamena

onartzen duten edo ez.

AZKOAGAKO ABADETXEA

Bestalde, Azkoagako abadetxearen aurreko aldean pitzadurak sortu direla-eta, kontuan hartuta etxe horren beheko solairua Udalarena dela, erabaki zuten arkitekto batek etxea konpontzeko proiektua egitea eta lanok lehenbailehen hastea, etxearen egoera dezente kaskarra da-eta. Hala, oraingo astean ziren lanak hasteko, eta bestela, laster hasiko dira. Udalak etxeko bestelako jabeekin akordioa egin beharko du gero, gastuok ordaintzeko.

MOZIO BI

Eta, bestelako kontuen artean, bi mozio ere bazituzten. Bata, gay eta lesbiana bikoteen adopzio eskubidearen alde. Eta bestea, Gernikako Estatutuaren gainekoa. Hain justu, eskatzen dute, besteak beste, Euskadiko Autonomia Estatutua aldatzeko zilegatasuna onartzea; eta Estatuko Gobernuari eskatzen diote Jaur-laritzari ahalmena emari diezaion erreferenduma deitzeko. Edozelan ere, ez dakigu mozioen gainean zer erabaki duten.

Gazte lokalen gainean gazteek egindako eskaera ez du onartu udalbatzarrak

LABUR

Areto futboleko partiduen emaitzak eta domekako zinema saioaren gainean

Oraingo honetan Bañera taldeko neskek ez dute horrenbesteko zor-te onik izan eta 8-0 galdu zuten Lan eta Jolasen kontra. Aldiz, mutilek 0-5 irabazi zioten talde berari. Bihar, etxean jokatzera tokatzen zaie bi taldeei. Neskek 10:00etan dute hitzordua, Jesus Obreroren kontra; eta mutilek 11:00etan, Los Herran Institutuaren kontra. Bestalde, domekan, *Mi gran amigo Joe* filma emango dute.

Urkiolako parke naturalaren gaineko plan gidaria jendaurrean dago

Udalak jakinarazi digu egunotan jendaurrean ipini dutela *Urkiolako parke naturalaren erabilerari eta kudeaketari buruzko plan gidaria*. Hala, nahi duenak dokumentua eskuratu, irakurri eta alegazioak edo erreklamazioak jar diezazkioke.

Hain zuzen ere, urte bukaera arte egongo da jendaurrean, udal-etxean.

Bagare bertso-txapelketako hirugarren kanporaketa datorren astean izango da

Datorren barikuan, hilak 28, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre bertsolari aramaiarrek Bagare bertso-txapelketako kanporaketa jokatu beharko dute. Legutianon jokatu dute hirugarren kanporaketa, 20:30ean, hango elkarteetan. Beste sei bertsolariarekin lehiatu beharko dute; hala, puntu gehien lortzen dituzten lehen biek lortuko dute bertsolari lehiaketako finalerako txartela.



Santa Zezilia eguna ospatzeko kantaldia

Bihar, zapatua, Santa Zezilia eguna da, musikarien zaindარიaren eguna. Eta, hori ospatzeko, Bizente Goikoetxea abesbatzak saio berezia egingo du. Baina domekan izango da hori. Hain zuzen ere, mezetan kantatuko du abesbatzak. 12:00etan hasiko da meza hori. Gero, abesbatzako kideek eta zenbait gonbidatuk bazkaria egingo dute Dukienan. /U.M.

Aramaioren eta Arrasateren arteko lotura estuaren gaineko liburua plazaratu dute

U.M.

Aramaioren eta Arrasateren gaineko liburua idatzi du Josemari Velez de Mendizabalek. Datorren barikuan, hilak 28, aurkeztuko dute Aramaion. 19:00etan izango da aurkezpena, kultura etxean. Udal ordezkariekin batera, seme kutunak izango dira, besteak beste.

Inoiz gertatu zaidan gauzarik politenetakoa Aramaion munduratu izatea da (...) Ni jaiotzez aramaioarra izatea Begoña Azkarraga nire amari zor diodakoan nago (...) Baina giza-karen sortze-unean, derrigorrez, ama ezezik aita ere eragile aktiboa da eta, nire kasuan, bigarren sortzailea guztiz lotua zegoen Arrasaterekin.

Hala aurkezten du Josemari Velez de Mendizabal historiagileak Aramaioren eta Arrasateren gainean idatzitako liburua. *Aramaio eta Arrasate, Historiak lotutako bi herri* izenburua ipini dio. Oro har, Aramaioren eta Arrasateren arteko harremana abiapuntu moduan hartuta, *bi herri horien arteko mugarri historiko* batzuk azaltzen ditu, *mendetan zehar bertatik, gora eta behera, iragandako jazoera batzuen aipamen-bilketa da irakurleak aurkituko duena.*

ANTZINAKO DOKUMENTU UGARI

Bi hizkuntzatan idatzi du hori guztiori Josemari Velezek, euskaraz eta gaztelaniaz. Eta testuari laguntzen, argazki zaharrak eta antzinako testuak dauka liburuan, Esteban de Garibai historialari arrasatearrarenak, esate baterako.

Liburua hiru ataletan banatuta dago.

Aurreneko kapitulu XII. mendetik hasi eta handik aurrerako makina bat kontakizun dakartza liburua. Erdi Arokoak, hain zuzen ere.

Adibidez, Jaurerriko Juan Alonso de Muxikaren gainekoak kontatzen ditu; hain zuzen ere, 1488an haren kontra kontzejuak ipinitako kereilaren gainean Errege Katolikoek emandako erantzuna ageri da.

Hain zuzen ere, Arrasateko 1448ko erreketan hil zuten Gomez Gonzalez de Butronen semea zen Juan Alonso de Muxika. Besteak beste, jauntxo hark zuen lehenengo gaueko eskubidez berba egiten du: *Teresa de Hormaetxe se querelló contra Juan Alonso porque la hiciera llevar a la su fortaleza de Barajuen e por fuerza e contra su voluntad durmiera con ella siendo niña virgen de edad de hasta once años poco más o menos e la desflorara e rompiera su virginidad y la conociera carnalmente.*

Hortik aurrera, Arrasateko erreketaren gainean sakon ber-



"ARAMAIO ETA ARRASATE, HISTORIAK LOTUTAKO BI HERRI" LIBURUA

Jesus Jauregiren autobusaren gaineko argazkia dakar, adibidez, Josemari Velezen liburua.

Liburuan, testuari laguntzen, argazki zaharrak eta antzinako testuak daude

Pedro Ignacio de Barrutiaren gainean tarte dezentea idatzi du Josemari Velezek

Historia kontuez gain, mitologiarekin lotutako gaiak ere lantzen ditu liburuan

ba egiten du Josemari Velez de Mendizabalek. Izan ere, *Aramaio eta Arrasate* historiara elkarrekin *pasazaziko zituen gertaera latza* izan zen hura. Antzezlan berezi

baten aipamena eginez bukatzen du kapituluak.

BIGARREN ATALA

Esteban de Garibairen gainean

berba egin eta gero, Aramaio Arabako Anaidietara sartu zeneko kontakizunarekin hasten da bigarren atala. Bien bitartean, *Arrasate gipuzkoar entramatu politi-*

koan hazi zen. Eta bata baserri-ekonomiara lotuta zegoen neurrian, bestean industriak gero eta pisu handiagoa zuen.

Adibidez, Pedro Ignacio de Barrutiaren gainean tarte dezentea idatzi du atal horretan, *Acto para la Nochebuena* antzezlanaren gainean, bereziki. Velezek kontatzen du, besteak beste, Barrutiak bere lanarekin Arrasateko gizartearen bizimoduaren gainean berba egiten duela. Adibide moduan, antzezlaneko pertsonaje batek, *Grazioso-k*, esandakoak batzen ditu: *Gure Mondragoen pagazen dogu dirua danzeagatik, auxedoc viziza modu, nesca zarroc danza eguin da mutiloc dirua pagadu. Ibini vidi alcate xauna, ibini vidi leguea Mutilac libre nescachac eurac pagadezeela danzea.*

HIRUGARREN ATALA

XX. mendea da azkeneko kapitulu protagonista, *Aramaio eta Arrasateren artean giza-harreman gehien izan dituen aroa.* Eta, hain zuzen ere, hortxe aipatzen ditu, esate baterako, Union Cerrajerak eta Elmak erakartzen zituen aramaioar piloak, Jesus Jauregiren autobusak, *Manzano* esne-saltzailea..., baita Santa Cruz apaizarena ere: *Señor cura de Aramayona: (...) no puedo menos que seguir la inspiración que siento para escribir estas pocas líneas para manifestar la grande estima que siempre he tenido desde aquellos tiempos para con los paisanos de ese pueblo. Ya se sabe por qué. Puede imaginarse qué cariño guardo para con ellos y cómo deseo que todos ellos consigan la eterna Bienaventuranza.*

Aramaioa sarritan joaten ziren arrasatearren aipamenak ere egiten ditu: Julian Arantzabal soinu jotzailea, Nicolas Pol txistularia, Aramaion jaiotako Juan Martin *Dontxo*...

Historia kontuez gain, mitologiarekin lotutako gaiak ere lantzen ditu Josemari Velez de Mendizabalek azkeneko atalean: *Gure amak esaten dau Anbotoko Señorie ikusi ebala egun baten. Gu Ametzu baserrixen bizi ginan eta...Anbotoko Señorie Zalgoko alabie zela esaten zan. Gaixtoa zalako Jaungoikoak eman eutsen kastigue Anbototik Aralarrera joan etorria eitteko...*

XXI. mendearen aipamentxoak eginez bukatzen du liburua.

AURKEZPENAREN NONDIK NORAKOAK

Lehen esandako moduan, liburu horren aurkezpena datorren barikuan izango da, hilak 28. 19:00etan hasiko da ekitaldia, kultura etxean. Eta han, Josemari Velez de Mendizabalekin batera, besteak beste, udal ordezkariak, herriko seme kutunak eta kultura elkar-teak izango dira. Liburuaren 300 ale bidaliko dituzte Aramaioa. Aurkezpenean banatuko dituzte.


"Gizakiok lantzen dugu historia"

Josemari Velezi liburuaren gainean hitz batzuk esateko eskatu diogu. Hona hemen hark idatzitakoa, oro har, liburu horren zergatia:

Arrasate eta Aramaioren arteko harremanak betidanik eman dira historian. Nik esango nuke, gutxienez bi mailakoak izan direla: erakunde edo agintariei zegozkien alde batetik, eta herritar arruntok garatutakoa, bestetik.

Lehen mailakoak beti osasuntsu edo lagunkoiak izan ez badira ere, herri mailan emandakoak, gehienbat, normaltasunetik joan dira, izan ere herri xeheari gehien ajola diona, eguneroko premiei aurre egitea baita. Bi herriak elkarren ondokoak direnez gero, herri xehearrentzat ez zegoen beste erremediorik ondo eramatea baino.

Nire liburuarekin, historiako mugarri batzuk ezagutu arazteaz gain, baditu beste zenbait helburu txiki ere. Alde batetik irakurleari azaltzea



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

historia ziklikoa izan daitekeela, bere muinean, azkenean historia lantzen dutena gizakiok garelako. Eta ene ustez, orain dela bost mendetako Arrasate-Aramaio hura eta gaur egunekoak, sentimenduz nahiko antzerakoak ditugu. Antzerakotasun horren gaineko jabetzak eman beharko liguke okerrak zuzentzeko aukera. Beste helburu txiki batzuk izan litezke, Pedro Ignacio de Barrutiaren obra, behar bezala herritarren artean

ezagutaraztea eta, nire ekarpen apal honen bitartez, Barrutiaren antzezlanaren eskuizkribua behin eta betiko Arrasatera ekartzea aldarrikatzea, izan ere, Barrutiak XVIII.mendean idatzitakoa, Arrasaten antzezteko eta arrasatearrok gozatzeko sortu baitzen.

Azkenik, berriro ere azpimarratu nahi nuke liburu honen bitartez atek ireki nahi dizkiedala historiagile gazteei, historiako esparru horretan euren lanetan aurrera egin dezaten, izan ere ikaragarritzko lana baitago oraindik egiteko.

ERRETRATUZAHARRA

Obduliarekin sukaldean ikasten

Orain dela gutxi, askorendako oso ezaguna zen arrasatear baten heriotzaren berri eman behar izan genizuen zoritxarrez: Obdulia sukaldaria.

Oraingo honetan denboran atzera egingo dugu eta haren gaineko argazki bat aterako dugu. Obduliaren ikasle izandako batek ekarri digu. 1959ko argazkia da.

Hain zuzen ere, Obduliak etxeko sukaldean ematen zituen sukaldaritzako ikastaroak, eta gure argazkia hantxe dago aterata. Neska ugari joaten zitzaizkion ikastera, Arrasatekoak gehienak, baina Bergararik eta inguruko bestelako lekuetatik ere etortzen zirela kontatu digute; trenean etortzen ziren.

Gure berriemaileak kontatu digunez, denetarik ikasi zuten Zaru-galde kaleko sukalde hartan; Obdulia oso sukaldari ona zen, eta hark emandako errezetak oraindik ere erabiltzen dituzte askok. Bi hilabeteko ikastaroa ematen zuen, eta Julio senarrak asko laguntzen zion bere



zereginetan. Ikastaroa bukatzen zutenean, askaria egiten zuten. Halako baten atera zuten irudiotako argazkia.

Honako hauek agertzen dira argazkian: goian, atzean daudenak Antoni Gomez eta Maria Cristina Gonzalez dira. Hurrengo ilaran, zutik daudenak, ezkerretik hasita honako

hauek dira: A. Garai, ezezaguna (Bedoñakoa, seguru aski), gero Obdulia bera dator, Nieves Juldain ondoren, hurrengoa ezezaguna da, Espe Sagasta du ondoan, gero Mari Letona dator eta azkena Miren Igartua da. Eta behean, ezkerretik eskumara begiratuta, honako hauek daude:

Elortza, Jesusa Txintxurreta, Espe Lizarralde, Pilar Ortubai, Miren eta Itziar Muxika.

Argazkia eta informazioa: Espe Lizarralde, Urtea: 1959

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garibai etorbidetik Ferixalekura

Argazki zaharra Jose Letonaren *Mondragon sus calles* liburukoa da. Argazkia Garibai etorbidetik dago aterata, eta Maala kalea eta Ferixalekua azaltzen dira. Argazki horri dagokion atalean, baina, Okendo kaleari izena eman zion familiaren gainean egiten du berba Jose Letonak. Itsasgizonak izan ziren Okendotarrak; jatorriz, donostiarrak.



≈ 1975 Okendo kalea Mondragones eta Otalora Lizentziaduna kaleen artean dago, Ferixalekuan bertan.



2003 Maala kalea, Uarkape, Otalora Lizentziaduna, Altamirako inguruak... Leku horiek guztiak zenbat aldatu diren ikusten da argazkian.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Garitano podologia

- Oinetako arazoaren tratamendua
- Ikerketa biomekanikoa
- Neurrira egindako plantillak

Iturriotz 7 bis • ARRASATE
Tel.: 943 79 67 02

**Aretz
Taberna**

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

laster

Debagoiena *esku-eskura*

Goiena.net

Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

MULTIOPZIOAK

**Eguzkitako
betaurrekoak**

Eguzkitako betaurrekoak
graduatzeko ditugu

50€ -tik
aurrera

**Betaurreko
progresiboak
erosteagatik
eguzkitako
betaurrekoak
OPARI**

**Hirugarren
Munduarekin
solidario**

Erabilitako
betaurrekoak
ekarriz gero,

26€ -ko
aurrezkia

betaurreko
berriak erostean

Juan Carlos Guerra 1 • ARRASATE • ☎ 943 79 29 95

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otorlora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiomasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldagian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22